

Goienka2a

TATUAJEAK
ETA PIERCING-A
ARAU BERRIAK



DEBAGOIENA: GREENPEACEK DEBA IBAIAREN EGOERA IKERTU DU /5

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko azaroaren 11 • V. urtea • 220. zenbakia • DOAN BANATZEKO

DEBAGOIENA

Oñatiko gaztetxearen
aldeko ekintzengatik,
gazte bat salatuta /5



ESTHER LARRAÑAGA / SAILBURUA

*"Galdera da, Madrilendako
gure borondatea bigarren
mailakoa ote den" /7*

ESKORIATZA

Tranbiaren proiektua
jendaurrean
erakusteko gertu /6

ASTEKO GAIA: URKULUKO LANDA-PARKEA

Urkulu, orain oinezkoek gozatzeko

Urkuluko inguruak txikundu eta oinezkoendako egokitu dituzte Aretxabaletako Udalak eta Foru Aldundiak. Lanak bukatu berri dira eta, orain, asfaltatutako bidea, bidegorria, aparkalekuak eta kirolerako eta atsede-

nerako instalazioak daude inguru hartan.

Lanak ez daude guztiz bukatuta: laster, zuhaitzak eta heskaiak landatuko dituzte eta naturaz gozatzeko moduko baliabideak ipiniko dituzte. /2-3

Behobia- Donostiako kronika bizia

Behobia-Donostia lasterketa bertatik bertara jarraituko du *Asteleheneko Goienkaria*-k, eta gertatu direnen erreportajea, argazki asko, debagoien darren sailkapena... batu-ko ditu hilaren 14ko zenbakian.

BERGARA

Nerabeak kalean hezteko programa hasiko da laster

Kalea heziketa leku egin nahi duen hezkuntza programa bat hasiko du Udal Ongizate Sailak. Programa aitzindaria da Debagoiengan.

Helburua da familia edo eskola iristen ez diren esparruetara iristea. Kalean, nerabeen arazak antzeman eta horiei eragingo diete hezitzaile batzuek. /6



XABIER URTZELAI

Xala eta Titin, finalerdietan Bergaran

Xalal eta Titinek jokatu dute domekan (17:00etan) Lau T'erdiko Txapelketako finalerdietako bat, Bergaran. Ligaxkako lehenengo norgehiagoka izango da, eta domekako partidua erabakigarria ez bada ere, atzoko pilota aukeraketan bi protagonistek azpimarratu gura izan zuten ondo hastea komeni dela. Bi pilotari horiek ondo ezagutzen dute elkar, eta pilotak aukeratzekoan igarri zen hori. Capellan eta Lasa III.a eta Gonzalez eta Eulate bikoteek jokatu duten norgehiagokak estreinatuko du domekako pilota jaialdia, eta ondoren etorriko da partidu nagusia. Sarrerak, beheko jarlekuetan 40 euro, eta goikoetan 15 euro. /10

Astelehenean, eskubaloiko gehigarria

Debagoieneko eskubaloi taldeen gaineko zortzi orriko gehigarria kaleratuko du *Asteleheneko Goienkaria*-k.




4x4
aukera
zabalena

4QUATTRO4 Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean) ARRASATE

605711576 / 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net



ANTES PVP: 59,95€
PROMOCION
41,95€

30% DESCUENTO
[ZAP. WALKING HOMBRE] THOLCKE | ADIDAS



Autumn
Winter
05

www.forumsp.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

SPORTLAND ARRASATE
Garibal Etorbidea, 2-6

Urkulu oinezkoendak

■ Asfaltatua eta bidegorria egin dituzte inguru osoan

■ Gidariak leku mugatuagoa dute hemendik aurrera

■ Atsedenerako eta ariketa egiteko lekuak egokitu dituzte

Oraingo lanekin, zati gehiena oinezkoendako geratu da. Ibilgailuendako neurri askoz zorrotzagoak daude orain. Hala, 180 aparkaleku egokitu dituzte, batzuk urtegiaren sarreran eta beste hainbat errepideko albo batzuetan. Zati batetik aurrera ibilgailuek debekatuta dute pasatzea, eta hala adierazten du seinale batek. Horrez gain, aparkatzea debekatuta dago seinaleztatutako aparkalekuetan ez bada.

Bestalde, hamarna banku eta zakarrontzi ipini dituzte tarteka. "Leku jakin batzuetan ipini ditugu, paisaiatzeko moduko lekuetan, eta bidea nahikoa zabala zen lekuetan, bidegorrikoak ez oztopatzeke", azaltzen du Jose Mari Segoviak, Aretxabaletako Udal Hirigintza arduradunak.

Azkenik, Arrasate hornitzaileko ur-ponpen etxolaren ondoan ariketak egiteko aparatua batzuk daude orain.

Lanen zati garrantzitsua egin da dago, baina azken ukituak falta dira: inguruan erremate batzuk ipiniko dituzte, babeseskubanda bat Dieguena base-rriaren parean, eta hornikuntzarako ur-ponpen etxola bota egingo dute.

Egitura berria baso-ekintza batzuekin borobilduko dute: inguruan zuhaitzak landatu; eta sasiak eta heskaiak kendu eta bertako heskaiak landatu. Sasiak kentzea beharrezko ikusten dute bizikletaz ibiltzen diren batzuek. Azken lan horiek Aretxabaletako Udalak egingo ditu.

GEHIENEN ONDO IKUSTEN DUTE

Aretxabaletar eta debagoiendar asko joaten dira Urkulu ingurura egunero, paseatzera edo kirola egitera; asteburuetan, inoiz baino gehiago, baina astekeo edozein egunetan ere bai. Hala, egitura berrien gaineko iritziak badaude dagoeneko; gehienak onak dira, eta askok azpimarratzen dute lehen bidea oso arriskutsu zegoela, batez ere eguraldi txarrarekin. Uste horretakoa da Victorino, antxintxika egite-ra joaten dena. "Oso ondo irudi-



Bidegorria sei kilometroan egin dute urtegiaren inguruan.



Seinaleei kasu egiteko eskatzen du Aretxabaletako Udalak.



Bankuak ipini dituzte paisaia ondo ikusten den leku batzuetan.



Aparkaleku berriak daude 180 ibilgailuendako.



Zakarrontziak ere berriak dira. Horietako hamar daude.



Ariketa egiteko aparatuetako bat. Bakoitzak argibide-kartela dauka.




Ariketetarako hainbat tresna dago ur-ponpen etxolaren ondoan.

LEIRE KORTABARRIA

Urkuluko ingurunea herritarrek gozatzeko moduko parke bihurtzera bidean dago. Ikus eta erabil daitezke dagoeneko egindako moldaketa batzuk: urtegi inguruko bidea asfaltatu egin dute (3,300 kilometro), eta bidegorria ere egin dute (sei kilometro). Horrez gain, ariketa fisikoa egiteko aparatua eta inguruneaz hobeto gozatzeko guneak ipini dituzte. Azkenik, aparkatzeko lekuak ere egokitu dituzte. Aretxabaletako Udalak eta Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu Sailak egin dituzte lan horiek, eta 600.000 euro inbertitu dituzte horretarako.

Urkulurendako bigarren proiektu handi bat joan den astelehenean, hilak 7, onartu zuen Aretxabaletako Udal Gobernu Batzordeak. Inguruko natura zaintzeko eta harekin hobeto gozatzeko helburua du proiektu horrek.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE
Erakustoki eta lantoki berria
Debagoiena industrialdea
Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35
Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73

0 egokiagoa da orain

tzen zait egindakoa; neguan, lokatza sortzen zen, eta oinezkoendako ere askoz politago dago orain". Emilio erretiratu aretxabaletarrak joan den astean estreinatu du bidegorria: "Aurrerantzean etorriko naiz, bai, bizikletarekin. Arazoa da orain txirindulari asko garela, baina tira, denok dugu eskubidea, ezta?", esaten du.

Maitane eta Lorea, Arrasateko bi gazte, sarri joaten dira paseatzera. Maitanek dioenez, "batez ere neguan eskertuko dute bizikletan, patinatza edo antxintxika egitera datozenek; lehen ez zegoen batere ondo"; Loreak, berriz, nahiago izango zukeen alde bat bakarrik asfaltatu izan balute. "Lehen politago zegoen, eta orain domekazaleendako-eta geratu da", dio; baina, oro har, ondo iruditzen zaio egindako lana.

LAN GEHIAGO ABENDUAN

Hurrengo proiektua Naturgintza Fundazioarekin batera era-



LEIRE KORTABARRIA

Horniketarako ur-ponpen etxola zaharra bota egingo dute laster.

mango du aurrera Udalak. Oro har, Urkuluko parkearen edertasuna eta natura ondarea azpimarratu nahi da proiektuarekin. Honakoak ipiniko dituzte: ingurunearen eta faunaren gaineko informazio panelak; animaliak

ikusteko bi behatoki; ahateek habia egin dezaten uhartetxoak; gutxituek arrantzan egiteko leku berezi batzuk; behatzeko dorretxo bat; eta urtegiak kalteak eragin zizkien baserrien omenezko monumentua. Lanok 204.000 euroko aurrekontua dute eta abendu erdialdean hasiko dira.

Azken lan horiekin batera egin nahi dituzte parkearen lan osagarriak -zuhaitzak landatzea, sasiak kentzea eta bertako heskaia ipintzea-, baina lan osagarri hauek Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak egingo ditu. Horrenbestez bukatuko dira Urkulu eta inguruak biziberritzeko lan guztiak.

Natura ondarea azpimarratzeko lan batzuk hasiko dituzte abendu erdialdean

Fauna behatokiak, informazio panelak, gutxituendako arrantza guneak... ipiniko dituzte

Udaltzainak, zorrotzago

Norberak ez baditu Urkuluko trafiko arauak borondatez errespetatzen, zigorren bidez errespetatu beharko ditu aurrerantzean.

Izan ere, Udaltzainek gehiago zainduko dute aurrerantzean Urkuluko ingurua. Dagoeneko hasi dira lan horretan. Hala, udaltzaina ibiliko da goizez eta arratsaldean, eta zerbitzua indartu egingo dutela esan dute Aretxabaletako Udaltzainek: zapatuan ere ibiliko dira eta "domeketan ere, noizbehinka bai", ohartarazten du.

Isunak ipiniko dituzte. Hala, seinaleztatutako aparkalekueetatik kanpo aparkatzeagatik 60 euroko zigorra ordaindu beharko da, eta zigorrak askoz handiagoak dira debekatutako lekutik dabilzan gidariendako. Isunez gain, Urkulura oinez joatea bultzatu nahi du Udalak: "Autoak Bainuetxen, industrialdean, utzi eta Urkulura bidegorritik joateko seinaleak ipiniko ditugu", diote Udaltzainek.

Udalaren iritziz, neurri hori beharrezkoa zen. "Trafiko arauak ez ditu jendeak seriotasunez hartu. Bidegorria mozten ere agertu izan dira ibilgailuak. Seinaleak kasu egiteko daude", kexatzen da Jose Mari Segovia, Aretxabaletako Udal Hirigintza Sailekoa eta egin diren lanen arduraduna.

Eibarko Aixolarekin lotu

Datorren urtean, ur hornikuntza arloko lanak ere hasiko dituzte Urkulun, 2007an bukatzeko.

Hauek Foru Aldundiaren ardura dira. Hain zuzen, Urkulu eta Eibarko Aixola urtegia lotuko dituzte eta, horrekin, Urkuluk hornituko du Eibar hemendik bi urtera.

Joan den ekainaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu zen proiektua onesteko jendaurreko iragarkia eta kaltetuen zerrenda. 16.000 metro koadro desjabetuko dituzte Eibarren, Elgoibarren eta Sorluzen.

CLINICA DENTAL BERGARA

FINANTZAKETA:
3 HILABETE
ETA 5 URTE ARTEKOA



Odontologia orokorra

Inplanteak

Protesiak

Hortz-estetika

Periodontzia

Aseguruak

Ipresa
Sanitas
DKV/Previasa
Asisa
Azkaran
Previsora Bilbaina
Aegón
Fremap
Adeslas
Allianz
Mapfre

PPS 99/94

Bidekurutzeta 36, behea BERGARA 943 76 05 77

LARRINETXE TABERNA

OHARRA

Arrasateko Udala auzoko
Larrinetxe taberna,
OPORRENGATIK ITXITA.
Abenduaren 1ean zabalduko dugu.



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW X3 2.0 BERRIA
BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
MINI COOPER 115 ZP. BERRIA
MB ML 320, 350. BERRIA
AUDI A6 3.0 BERRIA
BMW M3 2002

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

BMW 320 D 2005
BMW 320 D TOURING M. . . 2003
BMW 330 D TOURING M. . . 2003
VW TOUAREG RS 2004
VW TOUAREG V10 2004
AUDI A4 2.5 TDI S.LINE . . 2003
VW PASSAT TDI 130 ZP . . 2003



Goieskola sarea osatzen duten ikastetxeetako ordezkariak Arrasaten eman zuten manifestuaren berri.

GOIATZ ARANA

Heziketaren aldeko manifestua aurkeztu du Goieskolak ibarrean

Gizarteko aldaketek eraginda prestatu dute manifestu hau

IRATI AGIRREAZALDEGI/GOIATZ ARANA

Heziketaren aldeko manifestua aurkeztu zuen eguaztenean Goieskolak. Gizarte aldaketek eraginda hausnarketa egin dute, eta etorkizuneko herritarrek aniztasunean heztea da helburua. Manifestua ibarreko 2.000 familiari banatu diete.

Goieskolak, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoen Sareak, sortu zenetik gaur arte emandako pausoen gaineko hausnarketa egin du.

Hausnarketa honen ondorio garrantzitsuenetariko bat da eskola-bizitza aberasteko aniztasunak balio positiboa duela. Beraz, Goieskolaren ezaugarri nagusia aniztasuna izan dadila nahi dute elkarteko kideek.

Gizarteko aldaketek eraginda prestatu dute Heziketaren Aldeko Manifestu hau, eta etorkizunerako nahi duten eskolaren ezaugarriak jaso dituzte bertan.

ALDAKETAK

“Lehen garbi zegoen familiak, lantegiak eta eskolak zein leku betetzen zuten; gaur egun, ordea, mugak ez daude hain garbi. Lehen zigorra jasotzen zuen araua bete-

tzen ez zuenak, gaur egun bazterketa soziala da mehatxua; garai bateko belaunaldietan isiltasunak balio handia zuen, gaur egun komunikazioa da elkarlanerako behar duguna. Aldaketa sakonak egon dira gizartean eta eskolan, baina oraindik badago zer aldatu”, esan zuen Pilar Etxaniz, Antzuolako Herri Eskolako zuzendariak.

Etxanizek gaineratu zuenez, “irakasleek igorle soilaren lana egiten dute maiz eta hori ez da egokia, balioak eraiki egin behar direlako”.

ELKARBIZITZA POSITIBOA

Goieskolak bere gain hartu du elkarbizitza positiboago bat lortzeko erronka. Manifestua Debagoieneko 2.000 familia baino gehiagori banatu diete.

Goieskolaren helburua da etorkizuneko herritarrek aniztasunean heztea

‘Asteleheneko Goienkaria’, doan abendura bitartean

Nahi dutenek lau zenbaki jasoko dituzte, doan, etxean

GOIENKARIA

Asteleheneko Goienkaria-k promozio kanpaina berezia hasi du. Helburua da oraindik etxean jasotzen ez dutenek jaso dezatela, edo ezagutzen ez dutenek ezagutu dezatela.

Urte amaierara arte iraungo du kanpainak. Abenduaren 19an argitaratuko dute aurtengo azken zenbakia. Asteleheneko Goienkaria-ko harpidetza sailak lau zenbaki doan bidaliko dizkie etxera, hala eskatzen duten guztiei. Horretarako dei bat egitea nahikoa da, honako telefono honetara: 902 36 38 51, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.



GOIENKARIA

Asteleheneko Goienkaria-ko lau ale doan.

DATORREN URTEAN 36 EURO

Behin eskaria eginda, doan jasoko dute etxean Asteleheneko Goienkaria. Lau zenbakiok etxean jaso ostean, datorren urtean ere jaso nahi dutenek hala adierazi beharko dute harpidetza sailera deituta. Datorren urteko harpidetza kuota 36 eurokoa da eta diru horren truke 44 zenbaki jasoko dituzte. Horretaz gain, harpidedun egiten direnek hainbat

abantaila izango dituzte; hala nola, astero zozkatzen diren hainbat sari jasotzeko aukera izango dute.

Gaur egun 4.700 harpidedun ditu Asteleheneko Goienkaria-k. Horiez gain, badira Asteleheneko Goienkaria ohiko egunkari saltokietan erosten dutenak ere. Hala, guztira, 5.000 ale argitaratzen dira astelehenero.

DEBAGOIENEAN LABUR

Ikasle Abertzaleak taldeak greba deia egin du azaroaren 17rako, Ikasle Eguna dela eta

Azaroaren 17an Nazioarteko Ikasle Eguna dela eta, hainbat ekimen egingo dituzte, Ikasle Abertzaleak taldeak antolatuta. Unibertsitateetan grebarako deia egin dute *Bolognari ez lelopean*. Bata-sun Europarreko goi mailako hezkuntza eremuaren antolaketa prozesua da Bolognako. Irakaskuntza ertaineko ikastetxeetan, geldiuneak egingo dituzte. Arrasaten, 12:30ean, eskualdeko manifestazioa izango da ikasleen eskubideen alde. Eskoriatzan, jai giroan ospatuko dute Ikasle Eguna: bazkaria, bakarrizketa, triki-bertso poteoa eta jai antolatu dituzte. Azken hau gauean izango da, Eskoriatzako gaztetxean. Bestalde, taldekoek dei egin dute azaroaren 26an Larrabazterran egingo duten jaialdian parte hartzera.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Salaketa Oñatiko gazte bati gaztetxearen aldeko ekintzengatik

Gazte Asanbladakoek prentsaurrekoa egingo dute zapatuan

GOIENKARIA

Martitzenean Oñatiko gazte-
txea bota zutelako protesta
ekintzak egin dituzte herrian.
Ekintzetan parte hartzeagatik
salaketa ipini dute Oñatiko gaz-
te baten aurka. Gazte Asanbla-
dak astebururako iragarritako
ekintzak mantenduko ditu.

Martitzen goizean bota zuten gaz-
tetxea eta iluntzean hainbat pro-
testa ekintza deitu zituen Gazte
Asanbladak. 150-200 lagun inguru
elkartu ziren manifestazioan.
Istiluak ez ziren falta izan Oña-
tin eta Ertzaintzak bizpahiru aldiz
sakabanatu zuen manifestazioa.
Ekintza hauetan parte hartze-
agatik Oñatiko gazte bati salaketa
ipini diote. "Ekintzetako baten
ostean, txamarraren bila plazara
joan eta ertzainek zeukatenez,
proba gisa erabili dute ekintzetan
parte hartu eta desordena publi-
koa eragitea leporatzeko. Dekla-
ratu eta gero jakingo dut zigorra
zein den, baliteke isuna ipintzea.
Hala ere, ez dut salaketa ipintze-
ko pisuzko arrazoirik ikusten",
esan digu gazte oñatiar honek.



USOA AGIRRE

Oñatiko gazteek manifestazioa egin zuten martitzen iluntzean.

BILERA ASTELEHENEAN

Gaztetxea eraistearen aurrean
jarrera kontrajarriak azaldu dira
Oñatin. Udalak hiru arrazoi
eman ditu gaztetxea botatzeko:
segurtasun baldintzak ez bete-
tzea, erabiltzeko baimenik ez
eskatzea eta inoren gain behar-
ko luketen erantzukizunak erai-
kin publiko horretan Udalak bere
egiterik nahi ez izatea.

Oñatiko ezker abertzaleak
prentsaurrekoa egin zuen egue-
nean; Aralarrek eta hainbat gura-
sok ere ezadostasuna azaldu dute
eraisketa dela eta.

Gazte Asanbladakoek pren-
tsaurrekoa egingo dute zapatuan
egoera salatzen. Bestalde, aste-
lehen arratsaldean bilera izan-
go dute Udal ordezkariak gazte-
ekin.

Zientzia eta teknologiaren astean ingurune adimenaz jardun dute

IRATI AGIRREAZALDEGI/DEIANE ARRIETA

Zientzia eta Teknologiaren as-
tea egiten da Europa osoan.
Ibarrean ere izan da ekimenik
honen inguruan; Arrasaten,
erakusketa egin dute.

Aste honen lehentasuna zientziak
eguneroko bizitzan ekar ditza-
keen onurak azaltzea da, gehien-
bat gazteei.

Aste honen baitan, Fagorrek
eta Ikerlanek etorkizunerako
asmoak azaldu dituzte. Etorki-
zuna eraldatuko duen "ingurune
adimena" kontzeptua azaldu dute.
Posible egingo ditu egun pentsa-
ezinak diren gauzak. Esaterako,
etxean gas isurketa gertatzen ari
dela ohartarazi eta isurketa eten-
go du. Edo teknologia konplexu
hau barneratuta daramaten jer-
tseek jakinaraziko dute bihotze-

ko gaitza dutenen bihotza zein
egoeratan den. Fagorrek tekno-
logia berritzaile honetako etxe-
tresnak nahi ditu eta ikerketak
abian ditu Ikerlanek.

ERAKUSKETA

Gai honekin lotuta, *Domotika
Bizia: petroliozko berogailutik
ingurune adimenera* erakusketa
izango da ikusgai Monterronen
asteon.

Deba ibaia da, EAEkoen artean, kutsatuenetariko bat

Greenpeace-k egindako ikerketa baten ondorioa da hau

I.A.

Greenpeace erakundeak
kaleratutako ikerketa baten
arabera, EAEko ibaien %23
aurrez jarritako ingurumen
baldintzak ez betetzeko
arriskuan daude. Ibairik kutsa-
tuenen artean dago, hain zuzen
ere, Deba ibaia.

Greenpeace erakunde ekologis-
tak Espainiako Estatuko ibaie-
tako uraren kalitateari buruzko
ikerketa baten emaitzak aurkez-
tu ditu eta kezkarriak dira.
Ikerketa honen arabera, Euskal
Autonomia Erkidegoko ibaien
%23 uraren gaineko araudian
ezarritako ingurumen baldintzak
ez betetzeko arriskuan daude.

EAEEn Deba ibaia da, Ibaiza-
balekin batera, poluzio mailarik
altuena duen ibaia.

OÑATITIK BEHERA, OKERREN

Deba ibaiaren kutsadura eta
narriadura maila oso handia da,
Oñatitik behera batez ere. Arra-
zoiak dira ibaiko sedimentuetan
pilatutako konposatu toxikoak
eta bestelako gai arriskutsuak,
gehienetan industria isuriek era-
gindakoak. Bestalde, ibaiaren
hasierako urak kalitate ona due-
la dio ikerketa honek. Gune horre-
tan ondo eraturako multzo bio-
logikoak eta ondo zaindutako ibai
ertzak daude.

Greenpeace-k eskatu du Eus-
ko Jaurlaritzak neurriak har-
ditzala egoera honen aurrean.

DEBAGOIENEAN LABUR

Leintz ibarreko presoen alde korrika egingo dute Behobia-Donostia lasterketan

Arrasateko, Aramaioko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako preso
politiko guztien izenak eta zenbait iheslari politikorenak eman
dituzte domekan jokatu dute Behobia-Donostia maratoian.
Haien izenean korrika egingo dute ibarreko zenbait gazte bolun-
tariok. "Preso eta iheslariak bizi duten egoera salatu eta euren-
gana hurbiltzea". Horixe da presoek aldeko Portaloia elkarteak
bideratutako ekimenaren helburua. Hala, hiru aldarrikapen egi-
teko ere aprobetxatuko dute: elkartasuna adieraztea presoek seni-
deei eta lagunei; kartzela politika aldatzeko eskaera eta gizarte-
ri gogoraraztea "konpromisoari eutsi egin behar zaiola".

Kooperatibaren egunean, MCC eta bere sortzaileak omenduko dituzte Kursaallean

Munduko Kooperatibaren Eguna dela eta azaroaren 17an ospaki-
zun ekitaldia egingo dute Donostiako Kursaal aretoan. 11:30ean
Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidente Jabier Sala-
berriak hitz egingo du eta ostean, Ivano Barberini Nazioarteko
Aliantza Kooperatiboko presidentek. *Kooperatibak, toki garape-
na eta globalizazio justua* izenburupean hitzaldia izango da gero.
12:45ean MCCri eta bere sortzaileei omenaldia egingo diete 50. urteu-
rrera dela eta. Ekitaldia Ibarretxe lehendakariak amaituko du.

SAN MILIXANAK 05

XIII. Langintzen Feria Azaroak 13, Igandea



Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!

Euskal buztingintza

Kosmetika naturala

Zilarrezko bitxiak

Tornua

Zeta eskuz tindatze jardunean

Oihal zatiekien egindako lanak

Ezpelarekin egindako lanak

Ehungailuarekin lanean

Gazta egilea (Keritzara)

Artoarekin egindako alfonbrak

Esmalte eta erretxinarekin egindako bitxiak

Patchwork artea

Baserriko barazki eta fruituen kontserbak

Artisau gozogintza

Piper erreak



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



ARRASATE Lanpostuak gordetzeko ekimena bultzatu nahi dute Fagorren

Enpresak sustatzen jarduten duten Saiolan erakundeak eta Azaroa Fundazioak langileak ekintzaile izateko ekimena bultzatu nahi dute, langileen ekimenak eta ideiak batzeko. Fagorren egin nahi dute hori, eta Kontseilu Sozialari proposamena egin diote. Hari egokia iruditu zaio, bereziki, orain "ziurgabetasun testuingurua" bizi dugulako, eta horri aurre egiteko eta sortu diren erronka berriei erantzuteko "gure esparruan lanpostuei eusten laguntzeko" zerbait egin beharko dutela uste dutelako. /U.M.

ANTZUOLA Herriko Pilota Txapelketan 13 bikotek jardungo dute bihartik

Bihar, zapatua, ekingo diote Olalde elkarteak antolatutako Herri Mailako Eskuz Binakako Pilota Txapelketari. Hamahiru bikotek jardungo dute aurtentzen lehian. Hiru taldetan antolatu dituzte bikote horiek guztiak; lau bikoteko bi talde eta beste bat bost bikotek osatua. Lehendabiziko bi taldeetatik bikote bana sailkatuko da finalerdietarako, eta hirugarrenetik, bi bikote. Abenduaren 17an jokatu dituzte finalerdietako partiduak. Finala, berriz, abenduaren 23an, zapatua, izango da. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA Eduarne Pasabanen diapositiba emanaldia bertan behera geratu da

Eguenean Eduarne Pasaban mendizalea diapositiba emanaldia egiteko zen Espaloian, baina ekitaldia bertan behera geratu dela jakinarazi digute. Hala ere, horren ordez, abenduaren 1ean Alberto Iñurategi izango da. Bestalde, asteburu honetan izango da bestelako ekintzarik Espaloian. Gaur, barikua, Zangoango taldeak *Pan con pan* antzezlan saritua eskainiko du; eta bihar, zapatua, Jennifer Alvarado artistaren margo eta zeramika lanekin erakusketak ipiniko dute. /I.A.



JUAN LUIS MERINO

ARAMAIO

Beste granada bat leherrarazi dute Albinan oraingo astean

Albinako urak bestetan baino beherago daude. Horregatik, bide zaharra azaltzen hasi da, urpean. Eta justu, bide zahar horretan aurkitu dute granada. Espainiako Gerrakoa da. Hain zuzen ere, Juan Luis Merino eskoriatzarrak aurkitu zuen lehegailua, pasean zebilela. Kontatu digunez, Ertzaintzari abisatu eta martitzenean, hilak 8, leherrarazi zuten: "Zulo dezente handia eragin zuen, gainera", dio Merinok. Halaber, esan digu, Ertzaintzak kontatu dionez, joan den astean beste granada bat aurkitu zutela urtegi berean, eta litekeena dela gehiago azaltzea. Hortaz, inguru hartara joateko ohitura izanez gero, kontuz ibili; beste lehegailuren bat aurkituz gero, Ertzaintzari abisatu behar zaio eta, jakina, lehegailua dagoenean utzi, ukitu barik. /U.M.

OÑATI

Mendia eta Natura argazki lehiaketa egingo du Aloña Mendik

Mendiaren eta naturaren gaineko argazki lehiaketa deitu du Aloña Mendi Kirol Elkarteak mendia sailak. Aurreneko edizioan Oñatin ateratako argazkiak bakarrik onartu zituzten, baina bigarren edizio hau handiagoa egitea pentsatu dute, bai gai aldetik, baita sari aldetik ere.

Bi dira lehiaketako gaiak: mendia eta natura -alpinismoa, paisaiak, eskalada...- eta ingurumenari egindako erasoak. Gai bakoitzean hiru sari emanango dituzte: 300 euro lehengoarendako, 150 euro bigarrenarendako eta mendiko materiala hirugarrenarendako.

BALDINTZAK

Lehiaketan parte hartzeko informazio zehatza Aloña Mendiko mendia sailean emango dute (943 78 08 10), baina hauexek dira lehiaketan parte hartzeko baldintza nagusiak: 18 urte baino gehiago dituen edonork har dezake parte;

argazkiak 50x40 zentimetroko euskarran bidali behar dira abenduaren 1a baino lehen; gehienez hiru argazki bidali daitezke pertsona eta gai bakoitzeko.

ERAKUSKETA KULTURA ETXEAN

Epaimahaian egongo dira Josu Garai, Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga, eta abenduaren 16an egingo dute sari banaketa.

Aurkeztutako lanen artean aukeraketa bat egingo dute eta erakusketak jarriko dute kultura etxean abenduaren 16tik 30era.

Aurrerantzean, lehiaketa urtero deitzeko asmoa dute antolatzaileek. /O.E.

Zertzelada

Bi dira gaiak: mendia eta natura eta ingurumenari egindako erasoak; 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte

BERGARA

Nerabeei zuzendutako programa aurkeztu du Ongizate Zerbitzuak

Udaleko Ongizate Zerbitzuak 11-17 urte arteko nerabeei zuzendutako *Kaleko hezitzaileak* programa hasi du. Debagoienean esperientzia aitzindaria da Bergarako. Familia edo eskola nekez heltzen diren esparruetara heltzea da helburuetako bat.

Kaleko hezitzaile lanak egingo dituzte Kalekka

elkarteko Nerea Orenak eta Gorka Manjonek. Arreta berezia jarriko dute arazo zehatzak detektatu eta horiek jarraitzerakoan: eskolan egokitu ezina, gizarteratzeko prozesu desegokiak, kontsumoa... Kalea heziketa leku egin nahi dute, gazte eta nerabeen arazoak entzun eta jasoz. /E.M.



E.M.

Kalekka elkartea 11-17 urteko nerabeekin ari da lanean.

ARETXABALETA Bizigune programa sinatu dute hutsik dauden etxebizitzak errentan emateko

Eguaztenean, azaroak 9, izan zen Aretxabaletan Javier Madrazo, Etxebizitza Sailburua, Bizigune programa sinatzeko Udalarekin. Biziguneren bitartez, herrian hutsik dauden 60 etxebizitzak errentan emateko aukera emango diete jabeek. Era berean, Etxebiden eskaera eginda daukaten 97 herritarrek etxea eskuratzeko aukera izango dute. Suradesak bideratuko du Bizigune programa Debagoienean, eta Aretxabaleto udalarekin eguenetan egongo da teknikaria, 12:00etatik 13:00etara bitartean. /M.A.

ESKORIATZA

Tranbiaren proiektua laster erakutsiko dute jendaurrean

Jaurilaritzak aurkeztu dio Udalari tranbiaren proiektua. Hilaren 17an argitaratu dute EAeko Aldizkari Ofizialean, eta bi hilabeteko epea izango da alegazioak aurkezteko.

Tranbiak lau geltoki izango ditu herri barruan, eta Santa Ana eta Olazar arteko bidegurutzetik San Juan kale hasierara arteko bidea oinezkoendako eta tranbiarendako izango dela aditzera eman dute. Horrez gain, kiroldegi parean aparkaleku batzuk kenduko dituzte. Udalak laster erakutsiko du proiektua jendaurrean. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Aurten ere hamabost postu San Milixaneko artisansu ferian

Domekan egingo dute Gatzagan 13. San Milixan artisansu feria, eta guztira 15 postu jarriko dituzte herrian. Produktu mordoa egongo dira salgai, baina horrekin batera, artisansu lanean ikusi ahal izango dira. Aipatzekoa da, adibidez, Garestik (Puente la Reina) etorriko direla piperrak erretzera.

PANKARTA JARRIKO DUTE

Azokara jende asko joango dela aprobetxatuta, garraibide publikorik ez daukatela salatzen pankarta jarriko dute. /X.U.

Zazpi urtetan izan zen Esther Larrañaga Ingurumen saileko sailburuorde. Sailburu dagoela ikusi du oraingo arazoak lehenengo antzekoak direla, baina gaia-ri heltzeko modua eraberritu egin dela. Politikaz ere galdetu diogu.

OIHANA ELORTZA

Legealdiaren helburua Kyotoko protokoloa betetzea izango dela esan duzu.

Kyotoko protokoloa betetzea eta, beraz, negutegi efektua eragiten duten gasen isurketak murriztea. Horretarako, Aldaketa Klimatikoaren aurkako Plan bat abian da eta laster Aldaketa Klimatikoaren aurkako Euskal Bulegoa sortuko dugu. Tresna berri honen bitartez eginahal guztiak koordinatu eta bizkortu egingo dira.

Zein beste helburu zehaztu dituzue datozen lau urte hauetarako?

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia garatu nahi dugu, Ingurumeneko Esparru-Programaren (2006-2010) bitartez. Aldaketa Klimatikoari aurre egitea eta Garapen Iraunkorraren bidean sakontzea dira gure lehentasunak. Horiekin batera: biodibertsitatearen defentsa; herritarren inplikazioa hauspotzea; Lurzoruen kutsadura prebenitu eta zuzentzea; lurraldearen antolaketarako tresnak garatzea; ikuskaritza bizkortzea; eta, baita ere, Jaurlaritzak onartu berri duen Euskadiko Ur Lege berria aurrera ateratzea.

Nolakoa izango da lege hori?

Legebiltzarrak onartu behar du. Nolanahi ere, Jaurlaritzak onartu duen egitasmoaren arabera, lege modernoa izango da, ingurumenari lehentasuna ematen diona. Azpimarratzekoa da Uraren Euskal Agentzia sortuko dela, uraren kudeaketa eta planifikazioaren inguruko ahalmen guztiak bere baitan bilduz. Lege hau beste aurrerapauso bat izango da garapen iraunkorraren bidean.

Urari tasa ekologikoa jarri diozue duela gutxi. Zer da tasa hori eta non inbertituko da diru hori? Zertarako da?

Gure abiapuntua da ura baliabide mugatua dela eta, horregatik, kontsumitzaile guzti-guztiek urak dituen kostu denak ordaindu behar dituzte. Orain arte, uraren erreziboak kontuan hartzen zituen uraren zerbitzuaren kostua, azpiegitura, eta abar. Orain, Europako arauen filosofiari kasu eginez, ingurumen kostua ere aintzakotzat hartzen da. Zertarako kanon ekologiko hori? Ura ateratzeak ingurumenean eragiten dituen kalteak konpentsatzeko, nolabait. Hortaz, metro kubikoko 0,06 euro inguru kalkulatzen den kanon berri hau, gure ingurumenak jasaten dituen kalteen ondorioak arindu edota konpontzera zuzenduko da.

Erregaien arazoa ere gero eta handiagoa da. Zein da irtenbidea?

Ingurumenaren ikuspegitik, erregaien arazoa handia dela ezin uka daiteke. Baina garapen iraunkorraren ikuspuntutik egindako irakurketaren arabera, geuk egiten duguna da sustraiko arazoa, alegia, kontsumo mugagabe eta aseezinean. Jakin badakigu oraindik ere baditugula aukerak (bioetanola, bioerregaiak...), eta etorkizunean erregai garbiak eta berriak beharko direla. Edozelan, ezinbestekoa da merkatuaren beraren inplikazioa.

Zer da garapen iraunkorra?

Garai batean, Brutland andereak, Garapen Iraunkorraren Batzordeko presidentea izan zenak, oso era garbian adierazi



GOIENKARIA

Esther Larrañaga

ESKADIKO JAURLARITZAKO INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILBURUA

“Euskaldunon borondatea Madrilgo agintariendako bigarren mailakoa ote den, hori da galdera”

AHT PROIEKTUA

“Egiteak edo ez egiteak ingurumenean izango lituzkeen kalteak eta abantailak ikusi behar dira, eta ezin da ahaztu gurean garraioak sortzen duela kutsadura gehien”

EGUNGO GIRO POLITIKOA

“Aukerak landu egin behar dira alferrik ez galtzeko eta horrek esan nahi du Espainiako Gobernua hitzetatik ekintzetara pasa behar dela eta ETA ekintzetatik hitzetara”

zuen moduan, eta nire hitzetara moldatuta, garapen iraunkorra litzateke: gure oraingo bizimoduari eta gure oraingo garapenari eutsi, aldi berean gure ondorengo belaunaldien bizimodua, gure ondorengoen garapena bermatuz, hau da, arriskuan jarri gabe. Honek zer esan nahi duen? Herri bakoitzak gauzatu behar duela kontzeptu hori, benetako garapen batek hiru oinarri behar dituela barneratuz: garapen soziala, garapen ekonomikoa eta ingurumenaren inguruko garapena.

Zer iruditzen zaizu AHT proiektua?

Hau bezalako azpiegiturak eragina izango du gurean, hori ez dago ukatzerik. Baina kontuan izan beharra dagoena zera da: “Y” egiteak ala “Y” ez egiteak ingurumenean izango lituzkeen abantailak eta kalteak. Denak hartu behar dira kontuan. Eta ezin da ahaztu garraioa dela, gurean, kutsadura gehien sortzen duen sektorea. Alde horretatik, merkantzien garraioa errepideetatik trenbidera eramatea onuragarria izango litzateke. Beste aldetik,

Nafarroarekiko lotura, eta Europarekiko ere, hor daude. Esan nahi dudana da gauzak ez direla gehienetan zuri edo beltz izaten, eta irtenbiderik onena izaten da, maiz, onura gehien dakartzana, edo nahi izatera, kalte gutxien eragiten dituen.

Hitzarmenak ere egin dituzue enpresek hondakinak gutxitzeko. Ze emaitza lortu dituzue?

Gure Sailak eta EAEko hainbat industria-sektoretako enpresek sinatutako Borondatezko Ingurumen Hitzarmenei esker, 2.626 tona hondakin arriskutsu eta 231 mila tona hondakin ez-arriskutsu gutxiago sortu da. Gainera, ingurumen inpaktu handiena sortzeko arriskua duten EAEko hamaika industria-sektoreetatik zortzik dagoeneko Borondatezko Ingurumen Hitzarmena sinatu dute. Dagoeneko 260 enpresa dira. Gure Sailak emandako 3 milioi euroko dirulaguntzari esker, sektore pribatuan 29 milioi euroko balioa duten inbertsioak bultzatu dira. Eta neuk eskertu behar dut enpresek egindako ahallegina, borondatezkoa.

Bestalde, hitzarmen horiekin hondakin balorizatu gehiago sortzea lortu gura dugu, hau da, prozesu berean edo lehengai edo erregai gisa beste ekoizpen-prozesu batzuetan aprobetxatzen direnak.

Politika kontuetan, ze usain hartzen diozu gaurko giroari?

Itzaropentsua naiz. Baina aldi berean, ez genuke ahaztu behar aukerak, hobereak ere, landu egin behar direla, alferrik gal ez daitezela. Eta horrek Euskal Herrian esan nahi du, besteak beste, Espainiako Gobernuak hitzetatik ekintzetara pasa behar duela, ETA ekintzetatik hitzetara pasa behar duen moduan, noski. Eta denok ere, zintzotasunez, eskuzabal, eta ausardiaz jokatu. Nik uste dut bakearen ataria zeharkatuko dugula, norberak bestea errekonozitzen, aitortzen, duenean. Herri honen borondatearen ordezkari diren guztiak zeresana dute herri honen oraina eta geroa erabakitzerakoan. Baina bakearen bidean, normalizazioarena ere jorratu behar da, nahi eta nahi ez, autodeterminazioa eta lurraldetasuna bezalako kontuei helduz. Esan nahi dut: Irlandako bake prozesuak ez zukeen aurrera egingo, Downing Street-eko adierazpena gabe. Atera kontuak.

Nola ikusten duzu alderdien arteko mahaia osatzeko ideia?

Ezinbestekoa. Askotan gogora dator kit Garaikoetxea Lehendakaria Ajuria Enean zegoela gogotik saiatu zela orain hitzetik hortzera darabilgun “denon arteko mahaia” osatzen, eta zenbaitzuk ezezean utzi arte ez zuten atsedenik hartu. Eta askotan galdetzen diot neure buruari garai horretan zenbaiten jarrera bestelakoa izan balitz zenbat sufrikario aurretuko genuen.

Kataluniara begira gaude orain denok. Nola ikusten duzu hango egoera? Eraginik izango du gurean? Zein?

Zorterik hoberena opa diot Kataluniari. Badirudi, halere, Zapaterok errepstatu behar omen zuten Kataluniako Parlamentaren borondateari hasi zaizkiola mugak jartzen, betiko Espainiaren izenean, nola ez. Esperantza daukat, Kataluniako alderdiek irmotasunez eutsiko diotela euren herriaren hitza eta nahiari. Edozein kasutan, euren behintzat ez zaie eztabaida bera galerazi, Euskadiko Estatutu berriarekin gertatu den bezala. Eta galdera da: gure borondatea, bigarren mailakoa da, Madrilgo agintariendakoa?

Bestetik, 50 urte bete ditu MCCK. Zure aita izan zen sortzaileetako bat. Zer irakatsi zizun?

Gizatasuna zer den. Gizalegea zein inportantea den. Gizakiaren eskubideak eta baloreak defendatzeak norainoko garrantzia daukan. Gizaki izaten.

Gutunak

Arkatzak zorrozteko garaia da!

Azaroaren 17a Ikasleon Nazioarteko Eguna dugu. Ospakizun honen zergatia ulertzeko II. Mundu gerraren hasieran kokatu behar dugu: 1939an, Praga-ko ikasleak, Txekoslovakian, Nazien okupazioaren aurka eta haien eskubideen alde altxatu eta matxinatu egin ziren. 1939ko azaroaren 15ean nazien okupazioaren aurka burututako ikasle manifestazioaren ostean jazotako istiluen ondorioz, Jan Opletal ikaslea hil egin zen. Ondorengo bi egunetan Janen ikaskideek heriotza hau salatzeke ikasle mobilizazio ugari burutu zituzten. Naziek errepresio gordinagoarekin erantzun zuten eta azaroaren 17an Pragako unibertsitateak itxi eta 1.800 ikasle eta irakasle atxilotu zituzten, kontzentrazio eremuetara eramanez. Hauetako asko unibertsitate sarreran fusilatu zituzten eta beste askok heriotza aurkitu zuten derrigorrezko lanetan. Bi urteren ondoren, 1941ean, ikasleen Nazioarteko Kongresua burutu zen Londresen, eta bertan egun hau ikasleon Nazioarteko Eguna izendatzea erabaki zen. 66 urte igaro dira jada, 1939ko azaroaren 17 krudel hartatik, baina oraindik ere, hamaika injustiziren aurrean matxinatzen dira ikasleak. Ikasle Abertzaleak, 1939ko azaroaren 17ko gertakarien memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin, Ikasleon Nazioarteko Eguna urtero ospatzeaz arduratu da; Europan eta munduko beste herrietan ere ohitura hau berpizten lagunduz.

Urtez urte ikasleon aurkako erasoen gainetik ikasle borrokaren balioa erakutsi izan dugu eta aurrean ere, inoiz baino ozenago euskal ikasleen oihua abiaraziko dugu. Ikasleon Nazioarteko egunean, euskal ikasleek asko dute aldarrikatzeko. Euskal ikasleok, Ikasleon Eskubideen Kartan jasota dauden bederatz eskubide ditugu. Urraturik dauden bederatz eskubide. Borrokarako bederatz arrazoi. Euskaraz ikasteko ezintasuna, testuliburu arrotzak, adierazpen askatasuna mugatua, ikasleon aurkako espedienteak, jaiegun inposatuak, ikasleon kolektiboaren ukapena, curriculum inposatuak, greba debekuak eguneroko ogi, Lanbide Heziketa erdaraz, hizkuntza sexista, ikasi ahal izateko atzerrira joan beharra, tasa altuak..., eta hau guztia gutxi balitz orain, Bologna Prozesuaren bidez goi hezkuntza merkantilizatu eta pribatizatu nahi digute. Nahikoa da! Uneoro pairatzen dugun ikasle eskubideen zapalketaren aurrean, jaiegunik hartzeko paradarik ez dugulako, datorren azaroaren 17an ere, borrokarako deia zabalduko diogu euskal ikasle talde osoari! Euskal ikasleek bizi duten eskubide zapalketa dela eta, datorren azaroaren 17an mobilizazio eguna egingo dugu Euskal Herriko ikastetxeetan eta greba orokorra fakultate guztietan. Hau

dela-eta, azaroaren 17an, osteguna, jolas ordutik aurrera paroa egitera eta ikasle eskubideen zapalketaren aurrean ikastetxean zein eskualde mailan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Bergaran 11:30etan institutik hasita burutuko da manifestazioa!

Arkatzak zorrozteko garaia da! Lotu hadi borrokara!

BERGARAKO IKASLE ABERTZALEAK
Bergara

Hilean ordu erdi bat eta metro koadro erdi

Gutun hau, publikoa denez, edozeinek irakur dezake, baina azpimarratu nahiko nuke batez ere beren burua Ezker Abertzalean kokatzen duten pertsonen izenduta dagoela. Edo, zergatik ez, Euskal preso politikoek Euskal Herrian egon behar dutela pentsatzen duten guztiei.

Gizarte honetan gero eta indar handiagoz mezu bat hedatzen ari dira botere ekonomikoa dutenak, eta hainbeste saiaturik dira, azkenean norbera konturatu gabe ere gureganatzen joaten garela. Esaldi sinple batek laburtuko luke: lehenengo ni, gero ni eta azkenia ere bai ni. Ez daukagu denborarik inorentzat, guk geuk behar dugu gure denbora guztia. Bada, oraingo honetan zuen denboraren tartetxo oso laburra eta zuen espazioko metro koadro erdi, erabiltzen ez duzuenak, eskatzera natorkizue.

Zuen denboraren ordu erdia eskatuko dizuet hileko azken ostiralean herriko plazara etortzeko eta Etxeratekoekin batera presoek Euskal Herrian egon behar dutela modu isilean ozenki eskatzeko.

Eta erabiltzen ez duzuen metro koadro horretan zuen balkoian *Euskal Presoak Euskal Herrira* jartzeko eskatzen dizuet, azken finean gure baitan nahi eta desiratzen duguna leihoan modu grafikoan jartzea besterik ez baita.

Eta norbaiti Etxeratek eskatzen duena gehiegi iruditzen bazaio ariketa bat egitea proposatuko nioke. Zenbat ordu erdi daude 25, 20, 18, 12, 5 edo 2 urtetan. Presoek, amore eman gabe eta sakabakak, bakardadeari eta bakoitzak dituen arazo pertsonalei aurre eginez, zenbat ordu erdi eskaini dizkiote gure herriari? Eta ordu erdiak izango balira bakarrik... zenbat malko? Zenbat jipoi? Zenbat kilometro senideek eta lagunek? Zenbat istripu? Zenbat hildako? Zenbat...?

Aldarrikapen horren alde gaudenok ezin al dugu antolatu gure bizimodua hileko azken ostiralean ordu erdi libratzeko eta Euskal Preso politikoak Euskal Herrira aldarrikatzeko plazan? Asko da poteoari ordu erdi kentzea, edo luzatzea ordu erdiko etena eginez? Erosketak ezin ditugu egin beste momentu batean? Telebista aurrean egoteko ez al dugu bilatuko beste tartetxoren bat?

Presoak ez dira berez etorriko, guk geuk ekarri behar ditugu, baina horretarako herriko plaza bete egin behar dugu. Lehenik herriko plaza eta gero alboko kaleak ere bai. Batzuek barre egiten didate horrelakoak esaten ditudanean, baina ni baikorra naiz eta jendearengan konfiantza dut. Badakit guztion artean lortuko dugula!

ENRIKE LETONA (ETXERAT)
Arrasate

Aupa Arrasate!

Aupa Arrasate, bai, zorionak, negozioa Aondo doa eta. Ez filmeko Etxebestetar modernizau bakuei bezala. Zorionak, kooperatibak ondion be ejemplu die munduen-eta. Zorionak langabezia ezagatik. Zorionak unibertsitate bat izateko indarragatik. Lastima horren guztiaren atzean handikeria neurrigabea izatea:

Agenda 21 eta antzeko galerietako espektakulo mediatiko eta hitz ederren atzean (Mugikortasun Plana) gezurretan ari dira gure demokratek. Auto kopurua eta hauen gas emisioak murriztuko direla gure herrian? Arrasaten oraindik industria lanpostuek eta bestelakoek gorantz egin behar dute asko datozen urteetan, beraz, askoz gehiago etorriko dira kanpotik lanera. Auto-ilarak oraingoak baino luzeagoak. Telebistatik, modu ekologikoan gidatzeko kanpaineekin datoz... hobe auto-ilaretarako yoga ikastaroak!

Aramaixo errekararen harana oso-osorik zementuz estaltzeko balentria lortuko dute epe laburrean. Garapena! Ez dago Euskal Herriko beste inon lur industriarik? Gero tunelak, zubiak, saihebidetarako, autobideak, AHT (bailaran geltokirik ez duena), tranbiak, bidegorriak, bizikletak eta delta hegalek ere beharrezko noski denok aut-ilaretan harrapatuta ez gertzeko. (Kiroletasunez ordainduko dugu autopista Txabarri jauna). Eta zer zioten eko-hiri batez? Alizia Urkuluko urtegi.

Eko-hiri baten ordez, hor dator gure gainera, ordea, eta berehala, autobide berria, hurrengo hamarkadetan egunero milaka eta milaka kamioi eta abarren traba, atmosfera eta zarata kutsadura latzak opari. Eta hor dator AHT txiki-zioa, Udalatx ingurua eta gainerako Debagoieneko mendi bazter eta auzo ak hankaz gora jartzera.

Jaurilaritzak aurrean bertan onartutako beste plan batek, Plan Territorial Parcial del Area Funcional de Mondragon-Bergara, izen inozo horrekin (Eus-

ko Hirian inspiratua diote, izorrai, hori kategorixie!) Debagoieneko biztanleria gaur eguneko 65.000tik 100.000ra igotzea nahi du 16 urtetan, horrek suposatzen duen hirigintza (9.500 etxebizitza), lantoki berri eta trafikoarekin... Hori baldin bada gure datozen urteetarako "plana", ederrak gaude gu eta Kiotoko *protokuloa*. Aupa Arrasatekueee!

BALEN TRAMON
Arrasate, Gesalibar

Gaztetxeen alde

Gure autogestionatuak behar dira gure herrietan. Gaztetxeek lekua dute Aralarrek gura duen Euskal Herrian. Gazteak dira gure herriaren etorkizuna eta merezi dute gure konfiantza. Euren zuzenak nolako gunea gura duten adostea, gure hori aurrera ateratzea eta bertan aberasgarriak izango zaizkien ekitaldi zein ekintzak antolatzea guztiz positiboa da Aralarren iritziz. Udal-ordezkariek arduraz jokatu behar dute eta topatu ditzaketan desadostasunei irtenbide adostua ematen saiatu.

Oñatin gazteek okupatutako erakuntza botatzea erabaki du Oñatiko Udalak. Egoera azken muturrera eramateko erabakia hartu du Udalak, ez du arduraz jokatu. Arazoa gaztetxea botata konponduko duela uste badu, oker dago Oñatiko Udala. Laster sortuko dute gazteek beste gunea bat. Zenbait alderdik maizegi jotzen dute gazteak kontrolatu gura izatera, baina gazteek euren bidea egin behar dute. Udalak eta gazteek gai izan behar dute arazoari irtenbide bat topatzeko. Elkarrizketa da horretarako bide bakarra, gaztetxea botatzeak eta Ertzaintzak gazteen kontra gomazko pilotak botatzeak ez dute honetan bat ere laguntzen.

Ertzaintza soberan. Horrelako gatazkei irtenbidea bilatzeko Ertzaintzaren indarra erabiltzea, indar poliziala alegia, negargarria iruditzen zaigu. Baina errua ez da beraiena, erantzukizun politikoa beste batzuen da. Azken finean, hemen batzuek gizarte eredu kontrolatu eta polizialaren alde egiten dute eta, horrela, gure gazteek autoantolatetaren bidetik sormenerako, sozializazioerako eta kultura nahiz giza garapenerako bide propioak lantzea oztopatzen dute.

Debagoieneko Aralarrek animoak eman gura dizkie Oñatiko gazteei. Animatzeko zaituztegu zuen beharrei irtenbidea ematen dien gunea sortzera, irtenbidea topatzeko eman elkarrizketari aukera, landu zuzentzako interesgarriak diren gaiak, eman irtenbidea dituzuen kezkei, ez laga inork kontrola zaitzaten. Geldirik ez dauden gazteek egiten dute herria.

DEBAGOIENENKO ARALAR
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



Bainu altzari eta osagaiak
•
Hidromasaje kabinak
•
Manparak
•
Eraikuntzako materiala



BILTEGIA/BULEGOAK:

Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxe.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:

Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20



Debagoieneko eskubaloia

Eskubaloi taldeen GEHIGARRIA azaroaren 14an Asteleheneko Goienkarian
Taldeen argazkiak jokalarien izen-abizenekin • Erreportajeak • Iritziak

Asteleheneko Goienkaria
GEHIGARRIAK Gorde egingo dituzu.

Lau astean doan!

Jaso doan Asteleheneko Goienkaria lau
astez 902 36 38 51 telefonora deituta.
Gustukoa baduzu, jasotzen jarraitu ahal
izango duzu (2006. urteko abendura arte)
36 euro bakarrik ordainduta

Eskaintzaz baliatzeko:

902 36 38 51

09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

HURRENGO GEHIGARRIAK: Azaroaren 21ean **saskibaloi taldeak** • Azaroaren 28an **pilotariak**

Erabakigarria ez, baina ondo hastea komeni

Xala eta Titin, ligaxka ondo hasteak duen garrantziaz jabetuta

XABIER URTZELAI

Lau t'erdiko finalerdietako norgehiagoka jokatu dute domekan Xalak eta Titinek Bergaran. Irabazten duenak ondo hasiko du ligaxka, eta konfiantzaz egin ahal izango dio aurre Patxi Ruizen edo Olaizola II.aren kontrako norgehiagokari. Hori azpimarratu zuten bi pilotariek atzoko pilota aukeraketan.

“Ez da norgehiagoka erabakigarria, galduta ere beste aukera batzuk izango ditugulako. Baina domekan galtzeak esan gura du geratzen diren bi partiduetan ezingo ditugula akats gehiago egin. Horrekin batera, hurrengo astea askoz ere gogorragoa izango da, buruari buelta gehiago emango dizkiogu-eta”, azaldu zuen Bergarara umore onez etorri zen Titin III.ak. Izan ere, Xalak behar baino denbora gehiago behar izan zuen materiala aukeratzeko, eta errioxarrrak salatu egin zuen hori, umore giroan, horrek gutxienez bi tanto merezi dituela esanez.



Titin III.a, materiala aukeratu eta gero kazetarien galderei erantzuten.

Pampi Ladutxeren apopilak, bestalde, partidua galduta ere, ahalik eta tanto gehien egiteak duen garrantzia azpimarratu zuen. Materiala aukeratzekoan ere, bistan geratu zen elkar ondo ezagutzen dutela.

Titinek 104 eta 105,5 gramoko pilotak aukeratu zituen, eta Xalak 105,4 eta 104,3 gramotakoak: “Frontisetik ondo ateratzen diren pilotak aukeratu ditut, Titin sakea egin eta errematearen bila joango da-eta”.

Kirolabur

DEBAGOIENA/PREFERENTEA

Aloña Mendik liderra harrapatzeko ilusioarekin egingo du bidaia Trintxerpe aldera (zapatuan, 16:30ean). Aretxabaletak, berriz, 12. postuan dagoen Berioeren zelaian jokatu du, Donostian (zapatuan, 17:30ean). Etxean jokatu du Mondrak, sailkapenaren erdialdean dabilen Zestoaren kontra (zapatuan, 15:30ean).

BERGARA/SPINNING MARATOIA

Bihar, zapatua, egingo dute Bergaran Debagoieneko I. Spinning Maratoia, Labegaraietan. Antolatzaileek 50 minutuko lau saio prestatu dituzte, hainbat monitorerekin. Saio bakoitza ezberdina izango da. Bakoitzaren esku egongo da zenbat saiotan esku hartu.

DEBAGOIENA/DOMEKAN, BEHOBIA-DONOSTIA PROBA

Azaroaren 13a gorritz markatuta izango dute ehunka debagoien-darrek, hilabeteak eman dituzte-eta maratoi erdia prestatzen. Joan den urtean ibarreko 700 lagun baino gehiagok eman zuten izena lasterketa horretan, eta aurten ere, Arrasateko eta Bergarako kirol dendetan berehala geratu ziren dortsal barik. 400 lagun baino gehiagok eman dute izena horrela, eta beste askok Internetez.



Asteleheneko Goienkaria-k zabal landuko du domekako proba.

Partaidetza-kirolak duen pisua

Kirol federatua indarra galtzen hasi da partaidetza-kirolaren mesedetara

Partaidetza-kirola da kirolariak egiten duen kirola hainbat arrazoiengatik: osasunagatik, estetikagatik eta aisialdiagatik, besteak beste.

KIROL FEDERATUAREN BEHERAKADA

Jendeak gero eta kirol gehiago egiten du eta arrazoiak era askotakoak dira. Baina gero eta gutxiago dira, ordea, kirol lehiakorra egiten dutenak.

Jendeak bere bizimodua du, bere lana, bere zaletasunak, bere ordutegiak, eta zaila egiten zaio kirol konpromisoak hartzea. Gero eta gutxiago dira eguneko minutu edo ordu batzuk kirol lehiakorrerako gorde nahi dituztenak. Eta asko, ordea, minutu horiek kirola soilik egiteko gordetzen dituztenak.

Horregatik, kirol antolatua edo federatua ez doa aurrera, atzera baizik, eta hori ondo nabari dute kirol federazio bat baino gehiagok.

PARTAIDETZA-KIROLAREN GORAKADA
Eskola kirolek errendimenduko kirolera egiten dute salto ikasleek, baina urteak pasa ahala,



Zapatuko spinning maratoia partaidetza-kirolaren adibide bat da.

Kirolari asko, baina federatu gutxi

Spinninga zapatuan, Behobia domekan

aspertu egiten dira entrenamenduekin eta ordutegi zehatzekin. Oso gutxi iristen dira goi mailako kirolarien mailara; gehienak errendimenduko utzi eta partaidetza-kirolera pasatzen dira. Horregatik diote adituek komeni dela lantzea eskola kirolek partaidetza-kirolera joateko aukera.

Azken urteotan gora egin du partaidetza-kirola egiten duen jende kopuruak. Egun, EAEn, 6 urtetik gorako biztanleriaren %50ek egiten dute jarduera fisikoa. Federatuak %9 baino ez dira; beraz, gainerako %41 partaidetza-kirolean aritzen dira.

BEHOBIA-DONOSTIA ETA SPINNINGA

Partaidetza-kirola jende askok egiten duela esaten dute, eta, adibidez, edozein herri lasterketan ikusten da hori. Kirola egiten duen jendeak gustuko ditu herri mailako kirol hitzorduak.

Asteburu honetan, partaidetza-kirolarekin lotura duten bi hitzordu garrantzitsu daude: Debagoieneko I. spinning maratoia, zapatuan, eta Behobia-Donostia lasterketa, domekan.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria Arrasateko Iturriotz 35ean

**Argaltzea eta gorputz tratamenduak
Medikamentu eta orratzik gabe**

- Zelulitisa eta "laranja azala" izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak. Hauen artean ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetariko gorputz arazoak.
- Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatua ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehienez 8 saio hileko).
- **Tarifa finkoa: 60 € hileko.** Hilabete honetan, matrikula doan (40 €).
- Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.



Hartu parte
20 txartelen zozketan!

Hilabetez erabiltzeko 20 txartelen (8 saio hileko) zozketan parte hartzeko aukera izango duzu.

Angela Estetika Zentroak, hilabetez, bere zerbitzu berriak ezagutzeko aukera ematen dizu.

Bete paper hau eta bidali honako helbidera:

Angela Estetika Zentroa
Ferrerias 35
20500 ARRASATE

Izen deiturak

.....

Telefona

Helbidea

Heria

Baldintzak:

- Nahi beste txartel bidali ahal izango dira.
- Txartelak jasotzeko azken eguna azaroaren 21.
- Ez da fotokopiarik onartuko.

Saridunen izenak azaroaren 25eko Goienkarian jakitera emango ditugu.




Erregalu kaxak, saskiak eta otarrak prestatzen ditugu, zuen bezero, bisita, lagun edo familiakoei opari eder bat egiteko.

Oparien osagaiak aukeran libre uzten ditugu, nahi duzuen produktuekin osa ditzazuen.

Euskal Herriko hainbat produktu sartzeko aukera duzu saski eta kaxetan.

Aurrekontua zuen aukeraren arabera prestatuko dizuegu.



JAKION ETA LABIDEA / Tel. 943 71 46 86 / 943 71 47 92 / Faxa: 943 71 30 22 / e-postak: LABIDEA@telefonica.net / jakion@euskalnet.net

Gatzagako otarrak

Zorionak eta urte berri on!



TOYOTA
Orain Bergaran.

EuskoAuto

Olabarrena z/g
BERGARA
943 76 23 85

BERGARA **EUSKOAUTO** ELORREGI

A horizontal line with three circular dots is positioned below the text. The middle dot is larger and filled, corresponding to the 'EUSKOAUTO' location, while the two side dots are smaller and hollow, corresponding to 'BERGARA' and 'ELORREGI'.

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko azaroaren 11

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren
11tik 18ra

Adi!

Tatuajea edo *piercing*-a egin gura baduzu, dokumentu bat sinatu beharko duzu aurretik eta, adin txikikoa bazara, gurasoen baimena beharko duzu. Hori da Osasun Sailaren arau berriaren neurrietako bat. Tatuajeak eta *piercing*-ak **osasun baldintza egoki guztiekin** egitea nahi du arauak. /15

RIP

PUNKAREN 25 URTEKO HISTORIA BIZIA



DVD Erreportajea-elkarrizketak Kontzertuak Argazki galeria Bestelakoak

CD Argitaragabeko 14 abesti

Salgai ohiko
tokietan eta
GOIENAKo
egoitzetan



DVD-CD SALGAI

GORPUTZ-APAINKETA/ TATUAJE ETA 'PIERCING'-EN GAINKO DEKRETUA

Egileak, arau berriarekin konforme

DEBAGOIENKO TATUAJE ETA *PIERCING* EGILEEK USTE DUTE DEKRETUA ONA DELA MODU EGOKIAN LAN EGITEN DUTENENDAKO


LEIRE KORTABARRIA

Tatuaje eta *piercing* egileen jarduna arautua dago aurrerantzean, eta EAEn lan horrek zuen lege hutsunea desagertu egin da. Debagoienez badaude tatuajeak eta *piercing*-ak egiteko lekuak eta bakarrik horretan diharduten profesionalak eta, oro har, ondo ikusten dute araudi berria.

Bakar-bakarrik tatuajeak, *piercing*-ak eta antzeko gorputz-dekorazio lanak egiten dituzten bi tailer daude Debagoienez. Han lan egiten duten profesionalak ondo hartu dute aurrerantzean euren jarduna arautuko duen 285/2005 dekretua. Urriaren 11n onartu zuen Osasun Sailak, eta, horren arabera, Debagoienezko tatuatzaile eta *piercing* egile horiek sei hilabete dituzte dekretura egokitzeko eta baimen berria lortzeko dokumentuak aurkezteko. Era berean, dekretuak oso baldintza zorrotzak ipintzen ditu tatuaje eta *piercing* egileendako, lokalarendako, osasun eta higiene neurriei dagokienez...

Debagoienezko egileak ez dade arduratuta; izan ere, Mireiak, Aker dendako tatuatzaileak, dioskunez, "bagekieren arau hau egingo zutela, beste leku batzuetan badaukatelako antzekoa" eta, gaineratzen duenez, "orain egingo duguna arautzea da, dekretuak dioen guztia dagoeneko betetzen dugulako". Antzeko iritzia du Mentxuk, Ganesha dendako tatuatzaileak: "Ondo iruditzen zait legeztatzea; jendeari konfiantza handiagoa emango dio. Gainera, baldintzak betetzen ez dituen jende asko dago, eta horiei arreta deitzeko modu ona da".

Dekretuaren helburua da "egileen eta erabiltzaileen osasuna babestea" eta, horretarako, denteriko neurriak ipintzen ditu. Horiek betetzen direla ziurtatzeko azterketak egingo ditu Osasun



Tatuajea edo *piercing*-a egiteko, dokumentu bat izenpetu beharko da lehenengo.

Sailak. Era berean, udal bakoitzari dagokio lokal horiendako baimenak ematea eta lokalak kontrolatzea.

DENTISTEI, ILE-APAINTZAILEEI... EZ

Hala ere, alde txar batzuk ere ikusten dizkiote dekretuari: hain zuzen, uste dute beldurra piztu dezakeela, eta, batez ere, tatuaje eta *piercing* egileei ipintzen dizkietela arau oso zorrotz batzuk eta ez azalarekin, odolarekin... kontaktuan lan egiten duten beste sektore batzuei.

Izan ere, dekretuak oso arau zorrotzak ipintzen ditu. Berritasun batzuk ere badakartza: hala, aurrerantzean, tatuajea, *piercing*-a edo mikropigmentazioa (aurpegian egiten den makillaje mota berezi bat) egin gura duen edo-

zeini dokumentu bat eman beharko dio egileak, eta egingo dion teknikaren, lokalaren, egilearen beraren, arriskuen... gainera informazioa jasoko du dokumentu horrek. Bezeroak hori izenpetu beharko du eta, adin txiki-koa baldin bada, legezko ordezkariaren NAren fotokopia ere eman beharko du. Era berean, tatuatzaile eta *piercing* egileek titulu jakin batzuk izan beharko dituzte; homologatutako titulurik ez badute, ikastaro bat egin eta azterketa bat gainditu beharko dute. Azkenik, euren gaitasunaren berri eman beharko dute, eta tituluak bistan ipini.

Horiek guztiak, osasunaren izenean; izan ere, dekretuaren hitzurrean esaten da tatuajeak, *piercing*-ak eta mikropigmenta-

zioa "zuzenean lotuta" daudela "odolaren transmisioaren bidezko gaixotasunak hartzeko arriskuarekin". Mireiak hauxe dio horren gainean: "Jendeari azaltzen diot neurri guztiak bete gura dituen lehenengo neu naizela, neure osasuna zaintzeko". Gaineratzen duenez, jendea oso ondo informatuta dago.

Mentxuk eta Mireiak uste dute neurri horiek guztiak orratzak, artaziak... erabiltzen dituzten lanbide guztiendako izan beharko luketela: ile-apaintzaileak, erizainak, akupuntura egileak, estetizistak, dentistak... Mentxuren iritziz, "dokumentua izenpetzea ondo dago, baina neurrigabeko alarma piz dezake; dentistek, adibidez, ez dizute izenpetzeko dokumenturik ematen".

Dekretuak dioena

KALEKO POSTUETAN EZ

Aurrerantzean, debekatuta dago kaleko postuetan eta antzekoetan tatuajeak, *piercing*-ak... egitea.

SALBUESPENA

Piercing mota guztiak hartzen ditu dekretuak, belarri-gingila izan ezik, osasun profesionalak teknika esterilekin eta erabilpen bakarrekotresnekin egiten dutenean.

LANTOKIA

Harrera lekua, lan egiteko lekua, garbiketa eta desinfektatze gela eta norbera garbitzeko lekua, horiek laurak eduki behar ditu. Gela bakoitzak eduki beharreko tresnak ere zehazten dira.

MATERIALA

Azala, mukosak... zulatzeo erabiltzen diren tresna guztiak esterilak eta behin erabiltzekoak izango dira. Bakoitza bere ontzian edo poltsatxoan egongo da eta bezeroaren aurrean ireki beharko dira ontziak.

BEZEROARI INFORMAZIOA

Bezero guztiei dokumentu bat eman beharko diete informazio osoa emanez, bezeroak izenpetzeko. Adin txikikoek legezko ordezkariaren NAren fotokopia ere eman beharko dute.

TITULAZIOA

Tatuaje eta *piercing* egileek titulazioa erakusten duen txartela soinean eraman behar dute, eta dendan titulazioa eta baimena erakutsi.

LEIRE KORTABARRIA

M
MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

ONATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045

SEIN
grupa taldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta
paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Servimasa

Sukalderako altzariendako osagarriak

FAGOR etxetresna elektrikoak

• Kooperatibistentzako
banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobekak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Azaroak 11-18

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

DEIAK

ARETXABALETA

► **Zahartzaroan osasun ona** izatearen gaineko berbaldia egingo dute eguaztenez, hilak 16, Basotxo erretiratuen elkarteak, 17:00etan. Miren Amasorrain adituak hainbat aholku emango ditu.
► **Elizondora bidaia** egingo dute Basotxoko erretiratuek, eta izena emateko aukera dago astelehena, hilaren 14a, arte.

ARRASATE

► **Arrasateko emakumeen aurkako indarkeriaren diagnosiaren** berri emango dute martitzenean, hilak 15, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.
► **Ken Zazpik** kontzertu akustikoa egingo du hilaren 19an, zapatua, eta horretarako sarrerak salgai daude dagoeneko Kutxaren kutxazain automatikoetan, 943 00 12 00 telefonora deituta edo www.kutxa.net helbidean.

BERGARA

► **Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala ikusteko** txartelak daude Bilintx dendan eta Jardun euskara elkarteak, 25 eurotan. Bertsozale Elkarteak antolatuta duen bazkarirako txartelak Jardunen daude.
► **Sexu-biolentziaren aurkako legeak** urtebete duela eta, lege hori egin zuen Espainiako Kongresuko Batzordeko

hizlari batek, Maria Antonia Carok, berbaldia egingo du hilaren 15ean, martitzena, kultura etxean, 19:30ean.

DEBAGOIENA

► **Kirol politikaren gaineko topaketak** egingo dituzte azaroaren 24an Elgetako Espaloia antzokian, eta izena eman daiteke azaroaren 21era bitartean 639 21 40 68 telefonoan edo kirola@debagoiena.com e-posta helbidean.
► **El Salvadorri** laguntzeko dirua batzen dihardu Oscar Romero Elkartzasun Komiteak, Miguel Andueza bergarar domingotarra lankide duela. Andueza El Salvadorren dago, izan ere. Hiru kontu korronte zabaldu dituzte laguntza eman nahi duenarendako: Kutxan, 2101 0001 14 0004048278; Euskadiko Kutxan, 3035 0059 81 0590021346; eta Banco Guipuzcoano erakundeak, 0042 0046 08 0100940620.

ESKORIATZA

► **Elkarrekin Ikasi** izeneko jardunaldiak egingo dituzte gaur, egubakoitza, HUHEZIn, 09:00etatik 14:00etara. Artatse Ikastetxeko, Antzuolako Herri Eskolako eta HUHEZiko irakasleek eta ikasleek hitz egingo dute.
► **Bularreko minbizia ahalik eta azkarren antzemateko** berbaldia egingo du Kattalin elkarteak eguaztenez, hilak 16, kultura etxean, 18:00etan.
► **Mendiolarako mendi irteera** antolatuta du Udalak etzi, domeka. Herriko plazan batuko dira 09:30ean.

IKASTARROAK

ANTZUOLA

► **Interneteko albiste guneen** gaineko ikastaroa emango dute eguaztenez, hilak 17, KZgunean, 11:00etatik 13:00etara.

ARAMAIO

► **Internet bidez etxetik erosteko** ikastaroa emango dute astelehenean, hilak 14, KZgunean, 09:00etatik 11:00etara.

ARETXABALETA

► **Mekanizatu eta geriatria laguntzaile ikastaroak** antolatuta ditu Aretxabaleto Lanbide Heziketa Institutuak, denbora luzean lanik egin ez duten eta kualifikaziorik ez duten lagundeko. Azaro erdialdean hasiko dira, eta datorren udaberriari bukatu. Argibideetarako, deitu 943 79 79 00 telefonora.

► **Sabel dantza ikastaroa** antolatuta du Atxabaltako Gazte Ekimenak bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 17:30-20:30, eta izena emateko azken eguna gaur,

egubakoitza, duzue, doan, Ezkutu tabernan.

► **Irudi digitalak lantzen ikasteko** tailerra emango dute KZgunean. Bi zatitan emango dute: lehenengoa, hilaren 15ean eta 16an, 16:00-18:00 orduetartean, eta bigarrena, hilaren 17an eta 18an, orduetegi berean.

DEBAGOIENA

► **Ibarreko Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek** giza arazoetaz hausnartzeko eta boluntariorarako prestatzeko ikastaroa antolatuta dute azaroaren 26an hasita, sei zapatuan, goiz eta arratsaldean. Arrasaten izango dira eskolak. Argibideak, 943 77 17 38 telefonoan edo isfarrasate@euskalnet.net helbidean.

► **Aisialdi begirale ikastaroa** emango du Gurutze Gorriak azaroaren 26tik ekainaren 18ra bitartean, Mankomunitatean. 200 orduko ikastaro hori 15 asteburutan emango dute. Izenemate epea azaroaren 19 arte dago zabalik Elorregi auzoko euren egoitzan. Argibideetarako telefonoa da 680 64 80 14, eta e-posta helbidea, altodeba@cruz-roja.es.

ESKORIATZA

► **Asteburu bat Euskal Herrian** Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 10:30-12:30.

ONATI

► **Internetez etxetik erosteko** ikastaroa emango dute astelehenean, hilak 14, KZgunean, 16:30etik 18:30era.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Alaiak erretiratuen elkarteko** bazkideei omenaldia egingo diete gaur, egubakoitza. 12:00etan, meza entzungo dute; 14:00etan, batera bazkalduko dute, eta gero, sariak banatuko dizkiete.
► **Trikiti Eguna** ospatuko dute bihar, zapatua, iluntzean, trikiti eskolak antolatuta. 18:00etan hasiko da trikitalarien kalejira; 19:00etan, nekazaritza-egonaldia zozketatuko dute. Horrez gain, buzkantzak eta txikitoak banatuko dituzte Bizente Goikoetxea plazan.

ASPEPELOTA Goi mailako pilota ikuskizuna

Capellan - Lasa III.a / Gonzalez - Eulate

Titin III.a / Xala

Lau t'erdiko Txapelketa

Chafee - Laskurain / Berasaluze IX.a - Auxkin

- **Eguna:** igandea, azaroaren 13a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.



Erreserbak baita interneten ere: www.aspepelota.com



► **ANTZERKIA**

MAX SARIA IRABAZI DUEN ANTZEZLANA EGINGO DUTE ELGETAN

Estatuko antzerkiko sari garrantzitsuenak, Max saria, irabazi zuen *Pan con Pan* antzezlanak egingo dute gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia antzokian. Hain zuzen, 2003. urtean ikuskizun berri onenaren saria irabazi zuen. Kritikak ere bikainak izan ditu. Zanguango taldeak ekarriko du muntaia hori. Lau baztertu dira protagonistak; kalean bizi dira eta errealitate faltsu bat asmatzen dute bizitzari aurre egiteko. Taldearen esanetan, "dena galdu dutenak edo ezer eduki ez dutenak" dira protagonistak; horiei jarraituz, gizakiak taldeko kide izateko beharra, maitatzeko eta maita dezaten beharra eta nork bere buruari esaten dizkion gezurrak aztertzen dituzte. Horretarako, umorea, ironia eta etengabeko ezustak

Non: Espaloia antzokian. **Noiz:** gaur, egubakoitza, 22:30ean. **Sarrera:** 12 euro, 10 Goibeko elkarteko bazkideendako.

IMMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Duplexa erdialdean Oso ondo.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 50 m². Berritzea.
• Erdialdea 78 m². Oso ondo.
• Erdialdea 140 m². Oso ondo.
• Bioni Laskurain 90 m². Garajea.
• Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
• Osiñtu 100 m². Berritzea.
• Mugertza 104 m². Terraza.
• Bolu 85 m². Ondo.
• Zubietza 65 m². Terraza.
• Martoko 85 m². Berrituta.
• Txalet abikia. Oso ondo.
Antzuola:
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
• Sagazti 88 m². Bernia.
Soraluze:
• Erdialdea 50 m². Ondo.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:
• Erdialdea 160 m². Garajea.
• Erdialdean, duplexa 93 m². Bernia.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerrea 75 m². Oso ondo.
• Erdialdea 68 m². Oso ondo.
• Matxalegi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzea.
• Erdialdea 72 m². Ondo.
• Zubietza 80 m². Oso ondo.
• Duplexa, erdialdean 170 m².
• Azkaruntz 60 m². Eguzkitsua.
• Bolu 84 m². Oso ondo.
• Basarte 70 m². Oso ondo.
• Ozaeta 84 m². Ondo.
• Erdialdea 100 m². Berritzea.
• Duplexa 93 m². Oso ondo.
ELGETA:
• 70 m². Berritzea.
SORALUZE:
• Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

Iragarki sailkatuak

943 25 05 01 edo sailkatuak@goiena.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Hiru logela. 63 metro koadro. Sukaldea eta komuna jantzita. Berogailua. 175.000 euro. 652 70 57 91.

Arrasate. Etxebizitza salgai Zigorrola auzoan. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. 57 m². Gas bidezko kalefakzioa. Bizizaterajoa-terko gertu. 605 77 59 47.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Hiru logela. Zarugalde kalean. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 79 04 40.

Interioristak

Oihana Plaza & Oihana Beristain

- Barne arkitektura eta lokalen proiektuak eta berrikuntzak
- Obra zuzendaritza
- Erakusleho apainketa

616 84 55 96

Arrasate. Zigorrolan. 50 metro koadro eta berritzea. 646 71 04 18.

Bergara. Angiozarren base-ri bat salgai, 1.086 m². 625 70 24 64.

Bergara. Basarten etxebizitza salgai. Berrituta eta jantzia. Hiru logela, egongela eta sukaldea. 665 71 30 88.

Bergara. Bidekurutzetako 36. zenbakian etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela eta bi bainu. 667 80 92 89.

Bergara. Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru logela, bi bainugela. Oso eguzkitsua. Bista ederrak. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

Bergara. Ibargarai kalean. 86 metro koadro erabilgarriak. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. 646 57 95 21.

Bergara. Masterreka. Hiru logela. Jantzia. Garajea erosteko aukera ere badago. 943 76 18 81 edo 656 78 35 32.

Bergara. San Antonio. 72 m². Hiru logela. Eguzkitsua. 160.000 euro. 943 76 40 65 edo 945 33 71 98.

Bergara. Telesforo Aranzadi kalean. 140 metro koadro. Berritua. 699 75 45 46.

Bergara. Telesforo Aranzadi kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainua, ganbara eta igo-gailua. 943 76 37 26.

Bergara. Zubiaurren etxebizitza salgai. Berrituta. Bi logela, komuna, egongela eta

BERGARA

ESPERIENTZIADUN NESKA BEHAR DA JATETKEAN ZERBITZARI JARDUTEKO. EGUBAKOITZ GAUAK ETA ZAPATU GAUAK. 943 76 15 59 (BITXOR)

BERGARA

ILE APAINDEGIA EMATEN DA ERRENTAN. 665 17 90 76

ARAMAIO

ZERBITZARIA ETA SUKALDARIA BEHAR DIRA DUKIENA JATETXERAKO. 945 44 50 86

ARRASATE

HARATEGIKO ARDURADUN LANAK EGITEKO OFIZIALA BEHAR DA. SOLDATA OSO ONA. 629 16 07 17 943 71 26 13

ELGETA

MARTKAN DAGOEN ARRAINDEGIA ERRENTAN EDO LOKALA BESTELAKO NEGOZIOETARAKO. 943 76 80 09

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Errentan hartuko nuke etxebizitza. 657 77 89 91.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 670 59 73 62.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko, 25 urtetik gorakoa. Abendutik aurrera. 180 euro eta gastuak. 605 72 51 38.

Bilbon pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko abendutik aurrera. 260 euro hilean. 610 89 47 49.

Bergara. Garajea ematen da errentan Torrekuan. Nerea. 678 36 23 57.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Antzuola. Lokal komertziala salgai Eguzki auzoan. 128 m². Joxean eta Joserra. 655 72 63 70 edo 605 77 39 95.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara. DBH eta LHko eskola partikularrak ematen ditut. Mireia. 675 70 17 63 edo 943 76 03 97.

Debagoiena. Ingeniari tekniko eskola partikularrak emateko gertu (LH eta DBH). 652 72 92 25.

103. ERRENTAN EMAN

Alpujarra (Granada). Etxea errentan. Lau logela, bi egongela eta terraza handia. Mendizale eta naturazaleendako aproposa. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 79 42 33.

Arrasate. Bi logela ditu, eta erabat jantzita dago. 620 88 43 14.

Arrasate. Etxebizitza errentan. 657 70 22 68.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Oso ondo dago. 620 88 43 14.

Eskoriatza. Unibertsitatetik gertu. Hiru logela eta berogailua. Egoera onean. 18:00etatik aurrera deitu, mesedez. 617 80 26 19.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. 605 77 51 62.

402. ESKAERAK

Bergara. Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Emakume euskalduna prest dago haurrak eta adinoko jendea zaintzeko. 659 82 75 18.

Bergara. Neska prest egun erdiz etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 943 76 15 58 edo 626 40 73 49.

Oñati. Neska euskalduna gertu egunez edo gauez ospitalean gaixoein egoteko edo Oñatiko pertsona nagusiak zaintzeko. 653 71 53 61.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Adria Van furgoneta salgai. Fiat Ducato 2.8JTD. 30.000 km. Hiru lagunek lo egiteko. 29.000 euro. 943 77 19 32.

California modeloko furgoneta. Guztiz jantzita. Hiru urte ditu. 670 26 58 39.

Fiat Ducato autokarabana salgai. 1999. urtekoa da eta 50 mila kilometro ditu. 651 70 79 96.

Fiat Tipo 1400. 1996koa. 80.000 kilometro. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

Gas-Gas 250 Enducross motorra salgai. 2002koa. Matrikulatua. 669 50 03 89.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Prezio ona. 652 77 71 08.

KTM 250 exc motorra salgai. Matrikulatuta dago. Erre-

ANTZUOLA

JARDUNEAN DAGOEN ARGAZKI DENDA ETA BITXITEGIA ALOKAGAI EDO SALGAI. 943 78 70 66 635 75 72 71

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

ARRASATE

URDAITEGI BATERAKO PERTSONA BEHAR DA. ORDUTEGI MALGUA. ESPERIENTZIA EZ DA BEHARREZKO. 943 79 95 54

BILBO GARRAIOAK

KAMIOIETARAKO GIDA BAIMENA DAUKAN GIDARIA BEHAR DA. 609 47 94 43

ARRASATE

pidean ibiltzeko gupilak ere baditu. 3.300 euro. 605 77 54 59.

Husqvarna 250. Cross. Berritatu berria. Ondo. 1.900 euro. 626 38 22 28.

Hymermobil autokarabana salgai. Turbodiesela. Ondo jantzia. Ondo zaindua. 945 44 52 67.

Peugeot Partner 1.9 diesela salgai. 2. urte. Ohea, mahaia eta gortina isolagarriak ditu. 646 22 81 45.

Peugeot Partner. Gris metalizatua. 2.0 HDI. 4 urte. IAT 2007ko uztailea arte. 627 21 87 49.

Renault Laguna salgai. SS-AU matrikuladuna. 2.800 euro. 945 44 50 19.

Seat Leon salgai. 110 ZP.TDI. 4 urte. Oso egoera onean. 9.000 euro. 620 61 91 34.

DEBAGOIENA

Ingeniari teknikoak / industri maisuak bere esperientzia eskaintzen du. Esperientzia: ekipo-ondasunak, energia sorkuntza, H-makina, uren tratamendua, isurien deposituak eta sareak, kalitate eta azpikontratazioa. Euskara, autoa eta %33ko elbarritasuna. J.A.L. Zabala 659 04 33 24

8/ DENETARIK

801. SALDU

Eskiatzeko traje gorria salgai. 4-6 urteko haurrentzako da. Eskularruak oparitzen dira. 687 01 79 82.

Gitarra elektriko bat eta amplifikagailu txiki bat. 120 euro. 660 98 37 05.

Hagunak. Mitsubishi-ko lau txapazko hagun (lanta) berri. Takodun gupilak aukeran. 647 37 01 96.

802. EROSI

Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. 605 72 48 24.

806. GALDU

Bergara. Belarritako bat galdu dut Fleming kaletik Dia supermerkatuarekin. Aurkitzen duenak dei dezala. 653 74 87 60.

807. AURKITU

Bergara. Haur zapatila bat aurkitu dut galtzerdi eta guzti. 653 74 87 60.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

CG

CONSULTORIO GINECOLOGICO






Jesus Mari Zubizarreta eta **Mila Saenz de Zaitegi** eta **Pablo Beamurgia** eta **Vega Barco** bikoteek zilarrezko ezteiak ospatu dituzte Madeirara bidaia eginez. Zorionak laukote.



Blanka eta **Pitxi** bergararrak bihar, azaroaren 12an, ezkonduko dira Liernin. Bazkaria Lierni bertako Muxika jatetxean egingo dute. Zorionak bikote eta ondo pasa, lagunentzako partetik.



Saturnino Horrillo eta **Concepcion Mera** 1955eko uztailearen 30ean ezkondu ziren Quintana de la Serenan. Urrezko ezteien ospakizuna bihar egingo dute Arrasaten. Zorionak etxekoentzako partetik.




Kontxita Urizarren garagartzarra eta **Luis Martinez** arrasatearra Garagartzako (Arrasate) San Migel elizan ezkondu ziren 1955eko azaroaren 12an. 50 urte geroago, zapatuan, hilaren 12an, meza izango dute eliza berean, eta ondoren familiakoekin ospatuko dute. Zorionak senitartekoentzako partetik!

URTEURRENA

Jacinto Markiegi Laskurain

Donostian hil zen 2004ko azaroaren 28an.

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Leonardo Laskurain Irizar

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.

Zure senideek, beti eramango zaitugu gure bihotzean.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jesus Jimenez Perez

Bergaran hil zen 2005eko urriaren 31n, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 11n.

URTEURRENA

Luis Mari Oregi Arregi
Dominikoa
Maria Pilar Oregi Arregi

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 13an, 11:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Carricajo Lopez

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 13an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Elena Alkorta Larrea

2005eko urriaren 31n hil zen, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 11n.

ESKER ONA

Tere Garmendia Alava

Tomas Azkarateren alarguna

Arrasaten hil zen 2005eko azaroaren 2an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Arrasaten, 2005eko azaroaren 11n.

ESKER ONA

Luis Esnaola Telleria

Bergaran hil zen 2005eko urriaren 10ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 11n.

4
zenbaki DOAN

Jaso doan **Asteleheneko Goienkaria** lau astez. Gustukoa baduzu **Asteleheneko Goienkaria** jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.



Eskaintzaz baliatzeko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.


ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Sudurraren itxura aldatzeko hainbat teknika dago.

Sudurra konpondu nahi dut!

Sudurra konpontzeko ebakuntza gabeko interbentzio batez hitz egin didate, horri buruz informazioa ematea eskertuko nizuke. Bakarne.

Ekainean medikuen kongresu batera gonbidatua izan nintzen, eta mediku amerikar batek, sudurra konpontzeko kirurgia gabeko operazio bat aurkeztu zuen lehenengoz Espainian. Bertaratutako batzuei erakustaldi praktikoa egin zien. Kontuan hartzeko teknika dela uste dut, baina nire iritzia apalean (eta bertaratu ziren zirujau batzuenen) kasu hauek bakarrik erabili daitezke: sudur txikia eduki eta bolumena eman nahi zaionean, eta sudur tentea eduki eta zuzentasuna eman nahi zionean.

Ez zitzaidan teknika zuzena iruditu konkor sudurra zuzentzeko, teknika honekin bolumen handiko sudur antiestetikoa geratzen da eta. Zuk aipatzen duzun teknika ondorengoa da: sudurreko puntu batzuetan sustantzia bat injektatzen da. Eskuekin forma ematen den bitartean solido bihurtzen da.

Konkor sudurra zuzentzeko berriz, ondorengoa egiten da: sudurreko zati gorenetik bista-

ra geratzen den hezurreraino bete; ondorioz sudurra normalean baino zuzenagoa eta bolumenarekin geratzen da. Dena dela, nire gomendioa da zirujau konpontzaile batengana joan zaitezela zein aukera dituzun jakiteko.

Olaia erantzuna

EBarkatu lehenago erantzun ez izana. Ez dut uste hemezortzi urte baino lehenago zirujau batek bularreko kirurgia egingo dizunik, are gutxiago zure gurasoen baimenik gabe. Hauek dira arrazoiak: zure gorputza oraindik ez dago guztiz formatuta; adin minimo bat dagoelako era honetako interbentzioak egiteko; eta garestiak direlako horrelako interbentzioak. Ulertzen dut ez dela batere eroso izan behar zuretako. Nik, momentuz, ariketa fisikoa egitea gomendatzen dizut. Dena dela, zure gurasoak laguntzea lortzen baduzu, ez daukat inolako arazorik medikuzirujau batzuen helbideak eta telefonoak emateko..

Candelari erantzuna

Aipatzen didazun krema laborategi garrantzitsu batena da, eta zuri emaitza onak ez ematea ez da laborategiaren errua, eman dizun profesionalarena baizik.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Txerri-xerra	▼	Gaixo	▼	Kasik, abantzu
	Odolaren kolore	▶	Noren atzikia	▶	
	Izotza, horma	▶			
	Epaiketa	▶			
Atera, irten	▼	*Izena	▶		Bat
Argazki-koarderno	▶	Aldi batean	▶		Lasaiak
	▶			Herri hizk. bada	▶
				Litroa	▶
Txorien kartzela	▶				Okela
Berba, elea	▶			Rhesus faktorea	▶
				Lore atal	▶
Marokoko herritar	Omen	▶		Suari dariona	▶
	*Deitura	▶		Gorotza	▶
	▶				
Radioa	▶			Kutxa handia	▶
Dago				Eguzki	▶
				Aurrizki ekologista	▶
				Ezetzatzeko	▶
Oinaze-aldi	▶				Kontsonantea
Landare-entrioi	▶				Dezimetro
				Sortu zintuena	▶

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



ESKAERA

Duela urte batzuk herri txiki batean gertatua. Mutila neskaren baserrira joan da eta aita topatu du sororan lanean:
- Egun on! Zure alabarekin ezkondu nahi dut.
- Eta egon al zara nire emaztearekin?
- Bai, baina nahiago dut alabarekin ezkondu.

AITOR

Gerra ondoren Venezuelara ihes egindako bati gertatu omen zitzaion Caracasen. Erregistrora joan bertako paperak egiteko asmotan eta bere agiriak erakusterakoan funtzionarioak:
- ¡Nombre! (Izena)
- Aitor —erantzun omen zion euskaldunak—.
- ¿Y qué significa eso? (ea zer esan nahi zuen izenak).
- No significa nada; es un nombre primitivo vasco (ez zuela ezer esan nahi, euskal izen zahar bat zela).
Eta funtzionarioak paperetan Primitivo izena jarri zion.

EINSTEIN

Tolosako ikastetxe batean gertatua. Ikasle batek besteari, eskuetan fisikako liburua duela:
- Aizan! Albert Einstein hau —argazkia erakutsiz— bizkorra izango zunan, baina baita itsusia ere!
Eta besteak erantzun:
- Hau itsusia? Hau ez dun ezer! Itsusi amorratua bere anaia zunan: Frank!

SOLUZIOAK

A	M	A	•	I	Z	O	H
I	D	A	K	E	N	•	
G	•	O	K	E	•	V	D
A	K	A	R	A	•	R	•
R	A	R	O	K	O	A	M
A	K	E	•	E	I	•	•
H	•	A	Z	I	T	H	
•	A	L	O	A	I	K	•
B	•	M	U	B	L	A	
I	•	N	J	O	N	•	
A	•	L	E	I	A		
R	I	G	O	R	I		
•	E	•	S	•			



Azaroaren 14a: 064 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen


txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, azaroak 14, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Azaroaren 14ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

EIBAR-MURTZIA HIRIA

futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

063
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen azaroaren 11n Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **PAN CON PAN** antzerkirako. (saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Txema Garro Urtzelai (Arrasate)
- Buenuena jatetxea (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Tomas Jauregi Iparragirre (Antzuola).
- German Bolinaga Askasibar (Arrasate)

GOITBERRIAK

'Asteleheneko Goienkaria'-n, irabazleen izenak

GOITBk programazio berria aurkezteko egindako kanpainaren irabazleak nortzuk diren azaroaren 14an jakingo dugu. *Asteleheneko Goienkaria*-n kaleratuko dira irabazleen izenak. Telebista bat eta Kantabria edo Asturiasera bidaia bat oparituko ditu GOITBk ikusentzule fidelen artean. SMS eta txartel ugari jaso dituzte telebistan.


'Harmailatik' saioan, snow taula irabazteko aukera

Bergarako Laino kirol dendaren eskutik snow taula eskuratzeko aukera izango da *Harmailatik* kirol saioan. Astelehenero, Julen Iriondok aurkezten duen saioan erakutsiko dute taula eta SMS bidezko lehiaketan parte hartzeko aukera izango da. SMS bat bidali beharko dute 7505 zenbakira mezu honekin: GTB (hutsunea) laino.

'Teknopolis' eta 'Elkartasun bideak', Goiena Telebistan

Azarotik aurrera aldaketak egingo ditu Goiena Telebistak programazioan. Besteak beste, *Eguzki lore* saioaren ordez, *Teknopolis* eskainiko du eta *Chiloe*-ren ordez *Elkartasun bideak*. ETBk eta Tokiko telebista elkarteak duten akordio komertzialari esker ikusi ahal izango dira bi saio berri horiek Goiena Telebistan.

GOITBPROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA, 11	ZAPATUA, 12	DOMEKA, 13	ASTELEHENA, 14	MARTITZENA, 15	EGUAZTENA, 16	EGUENA, 17
						
Zientzia eta teknologia astea 'Behazulo' saioan 21:15 Zientzia eta teknologiaren gaineko astea egin da gurean. <i>Behazulo</i> saioan luze eta zabal aztertuko du gaia Goiatz Aranek.	Beasaingo bertso saioa zapatu eguerdirako 15:30 Txapelketatik kanpo bertso saioa egin zuten aurreko astean Beasainen. Bertsolariak zaleek aukera polita dute zapatu eguerdian.	Sukaldaritza saioan, barazki egosiak 12:30 <i>Eltze Beroa</i> saioan, barazki egosiak eta salteatuak egingo dituzte. Euskal Herriko sukaldaritza tradizionalaz gozatzeko aukera.	San Adrian eta Aizkorri inguruak 'Bidetxurretik' 15:00 <i>Bidetxurretik</i> saioan gure inguruko bazterak ezagutuko ditugu. San Adrian eta Aizkorri inguruetan barrena ibiliko gara.	Euskal Herriko aktualitatearen errepaso 22:15 Marijo Deograciasek zuzentzen eta aurkezten duen saioan, Euskal Herriko aktualitatea izango da hizpide martitzen gauean.	'Eneko Aritza, Orreagako guda' film laburra 22:15 Ibarrako (Gipuzkoa) Eneko Aritzaren Lagunak Kultura eta Filmagintza Elkartearen filma ikusteko aukera 16 mm saioan.	Itxaro Zubillaga kazetaria 'Zera dio' saioan 23:30 Itxaro Zubillaga kazetari aretxabale-tarraren eta Arantxa Iturbe kazetari eta idazlearen elkarrizketak ikusteko aukera.
13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ikuskizuna. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Ikuskizuna. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Eguzki Lore. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:00 16 mm. 23:30 Musika saioa. 23:45 Berriak.	10:55 Emisio hasiera. 13:20 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:15 Didjeridu. 13:45 Klip@. Musika taldeen bideoklipak. 14:30 Jazz mintegia. 15:00 MKT. 15:30 Beasaingo bertso saioa. 16:00 Danbaka. 16:15 Erreportajea. 16:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa 19:30 16 mm. Oihana Vegaren <i>Long play</i> film laburra. 20:00 Behazulo. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Didjeridu. 21:45 Ikuskizuna: Urrian Ordizian Sustraiez Blai jaialdiko Kukuma talderen emanaldia. 22:15 Behazulo: Nekazari gazteen etorkizuna gurean. 22:45 16 mm. Oihana Vegaren <i>Long play</i> film laburra. 23:15 Emisio amaiera.	10:55 Emisio hasiera. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa. Berdura egosiak eta salteatuak egingo dituzte. 12:45 Erreportajea. 13:15 Chiloe. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Ikuskizuna: Urrian Ordizian Sustraiez Blai jaialdian Kukuma taldeak eginiko emanaldia. 16:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 17:15 Klipak. Musika bilduma. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Behazulo. 19:15 Zera dio eta Motzean. 19:30 Ilunpean. 20:00 Didjeridu. 20:30 16 mm. <i>Long play</i> filma. 21:00 Jaun ta jabe. 22:00 Berbaire. 22:30 Didjeridu. 23:00 Emisio amaiera.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Bidetxurretik. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Klipak. 19:15 16 mm. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:00 Jazz zikloa. 23:30 Eltze beroa. 23:45 Berriak.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazkiak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Harria lantzen. 18:15 Jaun ta jabe. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Eguzki Lore. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: <i>Eneko Aritza</i> . 22:45 Albisteak. 23:00 Erreportajea. 23:30 Musika saioa. 23:45 Berriak.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Eguzki Lore. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: <i>Eneko Aritza</i> . 22:45 Albisteak. 23:00 Erreportajea. 23:30 Musika saioa. 23:45 Berriak.	13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Chiloe. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:30 Zera dio: Itxaro Zubillaga 23:45 Berriak.

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

TELEBEGI/ Leire Kortabarria

Cuatro eta 5

Joan den astelehenean, ezohiko bi gauza gertatu ziren telebistan. Alde batetik, kate berria hasi zen, Cuatro. Nortasun ikur oso deigarriekin jaio da, eta hori informatiboetan nabarmentzen da: aurkezle-zuzendaria da albistegiaren ardatza, Iñaki Gabilondo, kasu honetan, eta Gabilondo gustatzen ez zaionak –eta katearen ideologia, hau da, Prisa taldearena– jai dauka. Garai baten Antena 3n Jose Maria Carrascal-ek aurkezten zituen albistegiak ekarri dizkit gogora. Ikusteko dago apustu ausart horrek zelako erantzuna duen.

Ezohiko beste gertakizuna Tele5en gertatu zen: hitzarmen kontuak direla eta, greba egon zen eta ez zen gaueko albistegirik egon. Tele5eko arduradunak kezkatuta geratuko ziren: kompetenziari laguntzeko modu onena da norberak bere produktua kentzea.

Telebista kateek entretenimendua landuko dute, bai, baina argi dago albistegiak direla, beti, euren nortasuna eta boterea definitzen dutenak.

Itziar Urretabizkaia, 'Goenkale'-ko aktorearekin berriketan

ILUNPEAN:

Gaur, azaroak 11, 22:15ean
Aurkezlea: Oihana Elortza

Elkarrizketa berriz ikusteko aukera izango da asteburuan.




Ikustekoa!

EUSKAL OKELA

Kalitateak **saria** dakar

Eusko Label-dun produktuekin osatutako **12 otar**. Harategi bakoitzeko bat.



- 1. Jabi Altuna / Zubia harategia / ESKORIATZA** • **2. Pako Lardizabal / Kortaberri harategia / ARRASATE** • **3. Tarsicio Oses / Tarsicio harategia / OÑATI** • **4. Bixente L. Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARAMAIO** • **5. Miguel Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARRASATE** • **6. Naia Azpilikueta / Azpilikueta harategia / ARRASATE** • **7. Gotzon Inza / Bixain harategia / BERGARA** • **8. Itziar Gabilondo / Gabilondo harategia / ANTZUOLA** • **9. Ander Landaluze / Landaluze harategia / ARRASATE** • **10. Agustin Garai / Garai harategia / OÑATI** • **11. Jose Mari / Salegi harategia / ARRASATE** • **12. Antxon Egiburu / Antxon harategia / OÑATI**

Parte hartzeko moduak

- Debagoieneko Eusko Labela duten harategietan Euskal Okela erostearren emango dituzten txarteltxoak betez eta atzealdean Eusko Label produktuaren etiketa itsatsiz.
- GOIENKARIAn 2005eko urriaren 28an, azaroaren 4an eta 11n argitaratuko diren txarteltxoak moztuz eta beteta eramanda Eusko Labela duten Debagoieneko edozein saltokitara.
- Zenbat eta txartel gehiago, orduan eta aukera handiagoa saria irabazteko.

Epeak

- Parte hartzeko epea 2005eko urriaren 28tik azaroaren 11ra izango da.
- Zozketa 2005eko azaroaren 14an egingo da harategietan bertan.
- Sarituen izenak azaroan 25ean argitaratuko dira GOIENKARIAn.
- Eusko Label-dun produktuekin osatutako 12 otar. Harategi bakoitzeko bat.



Saridunen izenak azaroaren 25ean ostiraleko Goienkarian argitaratuko dira.

HARATEGI HAUETAN SOILIK!



ANTZUOLA

- Gabilondo harategia (A)
Kalebarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iburriatz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarre 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez dokorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erquin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espoloia 12

ESKORIATZA

- Zubia harategia (A)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maizazaren Lehena plaza 2

Izen abizenak:

EUSKAL OKELA
"Kalitateak saria dakar"

Telefonoa:

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Amaia Artzamendi/ Aretozaina

Nongo aretoak zaintzen dituzu? Batzuetan Santa Ana aretoan egoten naiz, antzezlanaren edo eguneko ikuskizuneko sarrerak kobratzen. Beste batzuetan, kultura etxean, bai zineko sarrerak saltzen eta filma botatzen, bai erakusketa gela zaintzen.

Bobinetan ekartzen dituzte oraindik filmak?

Bai. Behin DVDan ekarri zuten bat eta arazoak eman zizkigun.

Pisu handia izaten dute bobina horiek?

Filmaren luzeraren arabera izaten da hori. Film batzuek 2.000 metro

pelikula dituzte eta beste batzuek 3.000. Batzuetan kosta egiten zaigu bobina bere lekuan jartzea.

Arazorik izan duzu?

Filmaren lehen emanaldiaren bezperan probatu egiten dugu beti bobina. Prestatu egiten dugu, eta ondo dabilen ikusi. Gero, emanaldi bat egiten dugunean, atzeratu egiten dugu pelikula, eta hurrengorako gertu utzi. Azken egunean bobina desmuntatzea ere guri egokitzuten zaigu.

Zenbatek diharduzue?

Hiru lagun gabilta: Jone Ugarte, Iratxe

Aranburu eta ni. Txandaka dugu eginda egutegia.

Jan daiteke litzarke-riarik zine aretoan?

Berez ez, baina aretoa zikina egoten da askotan.

Noiz eta nondik ekartzen dituzte filmak?

Zinekluba egunetan izaten da eta edozein momentutan iristen da filma, baita egun goizean ere. Umeendako filmak eta komertzialak, berriz, eguazten arratsaldetan, normalean. Azpeititik ekartzen dituzte.

Zer egiten duzu filma botatzen ari direnean?

Gehienetan filma ikusten dut, lehenengo emanaldian. Gainerakoetan ikasten edo irakurtzen pasatzen dut denbora. Mekanizatua ikasten ari naiz, Oñatiko Larraña Institutuan.

Askotan esan diozu jendeari isilik egoteko?

Batzuetan bai, umeei batez ere. Gainera, eurei zuzenean ez badiezu esaten

ez dira isiltzen eta hor ibiltzen gara, behin eta berriz mezua errepikatzen.

Jende asko etortzen da erakusketak ikustera?

Erakusketaren arabera. Adibidez, txokolatearen inguruko erakusketara jende asko etorri zen, izugarri. Eskularen ikastaroetan egindako lanak ikustera ere asko etorri ziren. Oñatirekin lotura duten erakusketek izaten dute bisitari gehien.

Noiz etortzen da jende gehien zinera?

Domeka iluntzeko (19:30) emanaldira.

Sarreretakoz diruaz ere zuek arduratzen zarete?

Santa Anako ikuskizunetan, adibidez, geuk egin behar izaten ditugu kontuak eta baita dirua batu eta eraman ere.

Lanaren alde txarra?

Asteburuetan hementxe egon behar duzula, lagunek euren planak egiten dituzten bitartean.



“Berez, ezin daiteke ezer jan zine aretoan, baina aretoa zikina egoten da askotan”

“Bobinetan ekartzen dituzte oraindik filmak; batzuek 2.000 metro pelikula izaten dituzte, eta beste batzuek, 3.000”

“Oñatirekin lotura duten erakusketek izaten dute bisitari gehien”

► Oñati / 21 urte / Oñatiko hiru areto zaintzen ditu

PIPERRAUTSA

Etxebizitza

Inkesta fidagarriak eman berri du datua: gazteen kezka nagusia etxebizitza da, langabeziaren gainetik. Ez da harritzekoa. Azken hamarkadan, langabezia erdira etorri da, minimo teknikora hurbiltzeraino. Kopurueta ari gara, noski, ez kalitateaz. Denbora bertsuan, etxebizitzaren prezioa hirukoiztu edo egingo zen. Arrasaten iritsi da metro karratua 6.000 eurotara, hau da, milioi pezetara. Kalkulua erraz egiten da: 100 metro, 100 milioi.

Beste datu bat ere eman du inkesta berak: gazteek gurason etxea uzten dute, batez beste, 31 urterekin. Eta erraz pentsa daiteke azken hau dela beste bien ondorio: lan eskasa eta etxebizitza garestia, beraz, segi gurasoekin.

Baina, zergatik da etxebizitza erostea ezinbesteko baldintza, gurasoenetik joateko? Zergatik ez eman lehen urteak errentan? Gazteentzat badaude alokairu babestuak 180 eurotan, Jaurlearitzak atera ditu etxebizitza milaka batzuk errentan. Zergatik ez daude manifik astero, alokairu merkeak eskatzeko? Zergatik sortu da halako eskandalua aipatu direnean etxebizitza txikiak? Nola, bestela, merka daitezke prezioak?

Datuak datu, nik uste dut guraso ultra-babesleek beldurra diotela habia hutsik ikusteari. Eta txori gazte eroso-ohituek beldurra diotela hegan bakarka egiteari. Eta, komenentzian, konforme daudela biak.

Hegalari berantiarra, ordea, txori makala izan ohi da.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

FordMondeo 0Km

6.000 €
aurrez ditzakezu

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginak

